



ttipi-ttapa

TOKIKOM

www.ttipi.net



2013ko uztailaren 25a | XXXIII. urtea | 595. zenbakia

Herrietako Bestak

Bera, Beintza-Lab., Gaztelu, Leitza, Sunbilla eta Ziga

BERA → 30

Goiener Kooperatibako bazkide egin da Udala

LEITZA → 44

8. urteurrena ospatzen ari da Gaztetxea

ARKUPEAK → 48

Aiton-amonen Eguna uztailaren 26an

SARA → 52

Urbixntxa eskubaloi taldeak hogeiei urte

OIHANGINTZA | ERREPORTAJEA → 4-5

Euskal Herriko Zuren Ezaugarritze Proiektuari hasiera eman diote alertze eta izeien ezaugarriak aztertuz

Azterketaren emaitzak hezkuntzan eta eraikuntza arloan erabiliko dituzte



Bi lizentzia esleituz, Iruñerrian eta Nafarroa osoan emititzeko atea ireki dio Gobernuak

ELKARRIZKETA → 3



AUKERA BERRIAK XALOA TELEBISTARENTZAT



Laxoa Txapelketaren finala Donezteben abuztuaren 3an

Azken hiru urteetan txapeldun izan den Irurritako talde bakar bat ere ez zen sailkatu finalerdietarako, beraz, aurten 34. edizioa bete duen Baztan-Errekako Laxoa txapelketak txapeldun berria izanen du. → 54

ZOKETAK → xx



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra

benta berri



BERAKO BESTAK

. MENU BEREZIA .

- Sarrerak
- Bigarren platera aukeran
- Postrea
- Kafea

Aurtengo bestetan
zatoz gurekin ospatzera

30€

. MENU BEREZIA .



benta berri

Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa

Tel. 948 63 07 08

MENDIKO

. SAGARDOTEGIA . ERRETEGIA . JATETXEA .



BERAKO BESTAK

. SAGARDOTEGI MENUA .

Berako bestak direla eta, MENDIKO jatetxeak
Sagardotegi Menu berezia hau eskaintzen dizue

- Frijituak
- Bakailu tortilla
- Txuleta
- Gazta intxaurrekin...



25€

. SAGARDOTEGI MENUA .



Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa
www.mendikoibardin.com

Tel. 948 63 03 02



Lurreko Telebista Digitala sartu zenetik, egoera alegalean dabil Xaloe Telebista: ia 16 urte lizentziarik gabe, eta azken aldian, diru laguntzarik gabe. Orain, berriz, Nafarroako Gober-

nuak Iruñerrian eta Nafarroa osoan emititzeko lizentziak esleitu dizkio. Nafarroan euskarazko telebistentzat aukera berria ireki dela erran du batek baino gehiagok, Gobernuak euskara

kontuan hartzen duten hiru proiekturi bortz lizentzia banatu baitizkie: Xaloe eta Abian Komunikazioari Iruñerako eta Nafarroa osorako bina eta Hamaika telebistari Iruñerako bat.

Joseba IGARABIDE | Xaloe Telebistako zuzendaria

«Lanean aritu ahal izateko guretzat garrantzitsuena lizentzia lortzea zen»

G. PIKABEA | ESKUALDEA

Zein da gaur egun Xaloaren egoera?

Momentu honetan egoera nahiko larria da, estu gaude. Alde batetik, azken urteotan hedabideendako ematen diren diru laguntzak ez ditugu jasotzen eta horrek estutu egin digu ekonomia. Bertetik, publizitatea da gaur egun diru iturri nagusia eta publizitaterako ez dira garairik onenak. Horren ondorioz, langileak ERE batean daude duela urte batek honat, nahiz eta ekoizpena ateratzeko konpromisoa hartua duten. Lanean berdin segitzen dute, baina ERE baten barranean ari dira.

Nafarroako Gobernuak Iruñea aldeko lizentziak gain, Nafarroa osoan emititzeko lizentzia ere eman dizue. Zein da egin duzuen lehen balorazioa?

Lehen balorazioa positiboa izan da. Lizentzia izatearekin batera, guttienez diru laguntzak jasotzeko ahal izanen ditugu. Bi aukera eman dizkigute, eta lanean segitu ahal izatea ahalbideratuko diguna aukeratu nahi izan dugu. Gure eskualdean emititu ahal izateko Nafarroa osokoa garestia da, baina Iruñeko hartuta ikusi behar da eskualdean emititzea bermatuko digun.

Espero zenuten?

Zalantza handiak genituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joseba Igarabide Xaloe Telebistako zuzendaria.

tuen. Iruñerako lau lizentzia zeuden eta hiru proiektu aurkeztu gine-la ikusita, agian aukera bat izaten ahal genuela pentsatzen genuen. Autonomikoan bi lizentzia zeuden eta hiru proiektu aurkeztu ginen. Hor ez genuen pentsatzen aukerarik izanen genuenik. Kasu honetan biak eman dizkigute eta sorpresa erlatiboa izan da. Bertze aldetik, Xaloe Telebistak lanean segi zezan eskatuz, Parlamentuak Nafarroako Gobernuari egingo agindu bat ere bazezogen.

Nolatan pentsatu zenuten gure eskualdetik Iruñera edo Nafarroa osora hedatzea?

ERABAKIA ASTE HONETAN
Xaloe Telebistak Iruñerrian eta Nafarroa osoan emititzeko bi lizentziak eskuratu ditu. Lerro hauek idazterakoan oraindik deus erabaki gabea zuen, baina uztailearen 23rako eman beharra zuen erantzuna, Gobernuaren proposamenak onartzen dituen ala ez adieraziz. **TTIPI-TTAPAri adierazitakoaren arabera, bi lizentzietako bat hartzeko asmoa zuen, eskualdean emititzen segitu ahal izatea ahalbidetuko diona.**

erria osora hedatzea?
Eskualderako lizentzia bat eskatu izan dugu aspalditik, baina badirudi zailtasun handiak daukela eskualdea demarkazio baten barrenean sartzeko. Errazago ikusten zuten modu honetara lizentzia ematea. Lanean segitzeko lizentzia eskuratzea behar-beharrezkoa genuelako aurkeztu ginen lehiaketetara. Aterabide bat bilatu behar genuen, ez zenguk nahi genuena, baina ezin genuen beti esperoan egon. Aurtengo urrian 16 urte beteko ditu Xaloe Telebistak egoera alegalean lanean eta aurrerapauso bat ematea era-

baki genuen. Bertzela, lizentziarik gabe, eta ondorioz, diru laguntzarik eta deus gabe, ito eginen ginatke.

Nola aldatuko da zuen proiektua?

Eskualdetik at egin beharreko guztia erronka handia da Xaloarendako. Gure eskualdeari zerbitzua ematen segituko dugu eta eskualderako orain arteko programazio bera mantendu nahi genuke. Eskualdean emititu ahal izatea bermatu nahi dugu. Eta horri garbi dugu, hemengoak gara, hemen sortuak eta hori izanen da lehen-tasuna. Eta hortik goiti ahal dugun guztia eginen dugu. Guretzat garrantzitsuena lanean aritu ahal izateko lizentzia eskuratzea zen. Hori da abiapuntua. Diru aldetik juxtu gabilta eta juxtu segitzen baldin badugu, erantzuten ahal dugunari erantzunen diogu. Edozein moduz, proiektua oraindik martxan jarri arte urte bateko epea izanen dugu eta urte horretan gauza aunitz aitzineratzen ahal dira.

Euskarazko telebistentzat aukera berria ireki da Nafarroan?

Bai, noski. Euskaraz lan egiten duten hiru proiekturen artean bortz lizentzia banatu ditu Nafarroako Gobernuak. Gisa honetara euskararendako atea irekia gelditu da Nafarroan.



ARGAZKIAK: MARI JOSE BARRIOLAK UTZITAKOAK

Douglas izeiarekin eta alertze japoniarrarekin egiten ari diren ikerketan orain arte zer egin duten ikus daiteke argazkietan. **1-** Hasteko zuhaitzak markatu zituzten eta horretarako, Lesakan eta Beran ere ibili ziren loteak osatzeko. **2-** Zuhaitzak atera eta identifikatzeko ueña. **3-** Behin zuhaitzak botata, zerrategira garraiatu zituzten. **4-** Neurri desberdinetako bigak prestatu dituzte azterketak egiteko.

OIHANGINTZA → EUSKAL HERRIKO ZURAK

Douglas izeia eta alertze japoniarraren ezaugarriak ikertzen ari dira Europako eta eraikuntzako araudiek diotenari egokitzeko

Irungo Bidasoa Institutuaren ekimena izan da eta Tknika Zentroak koordinatzen du

Zuren inguruan Lanbide Heziketarako materiala sortzeko, Euskal Herriko Zuren Ezaugarritze Proiektua jarri dute martxan. Horren harira, Euskal

Herrian hedatuak dauden douglas izeia eta alertze japoniarraren ezaugarriak ikertzen ari dira, eraikuntzako egituretan erabili ahal izateko.

G. PIKABEA

Hiru txerrixoen ipuinak kontatzen duenez, lastozko etxea erraz bota zuen otsoak putz eginez,

gehixego kostata baina egurrezko etxea ere bota zuen. Ez, ordea, adreiluzkoa, sendoagoa zelakoa edo. Azken hau egu-

rra baino hobea izan dela pentsatu izan da, baina hala ote? Hortxe ditugu zurezko egitura duten eta ehunka urte dituzten

baserriak eta hainbat herrialdetan egurrak duen erabilera lekuko. Mende aunitzetan, eraikuntzan gehien erabilitako materiala egurra izan zen. XX. mendean, aldiz, ormigoia sartu zen eta geroztik hura erabili da batez ere. Baina, orain, berriz egurraren erabilera indartzen hasia da.

Egurrak, ongi erabilia, bere aukerak badituela iritzita, proiektu berria paratu dute martxan Irungo Bidasoa Institutuan: Euskal Herriko Zuren Ezaugarritze Proiektua. Lanbide Heziketako zikloetarako materiala prestatzeko helburuarekin hasi ziren egitasmo honekin lanean, eta horrekin batera, Euskal Herriko bi zuren ezaugarritze prozesua lantzen hasi ziren, gerora eraikuntzako egituretan erabili ahal izateko: Douglas izeia (*Pseudotsuga mezesii*) eta alertze japoniarraren (*Larix Kaempferi*)

oinarritu dute ikerketa.

Bidasoa Institutuko Zurgintza eta Altzarigintzako Mintegiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean aurkeztu zuen proiektua: «gure helburua Lanbide Heziketako zikloetarako eduki didaktikoak sortzea zen. Egurraren inguruan dagoen bibliografia oso goi mailakoa da eta Lanbide Heziketarako material gutxi dago. Hori izan zen abiapuntua. Zuhaitzak basotik bota eta prozesu guztia jarraitu nahigenuen, bideoz grabatuta, irakasle, enpresa nahiz ikasleentzako gidaliburu digital bat sortuz [<http://normadera.tknika.net>]». Halaxe kontatu digu Mari Jose Barriola leitzarrak, Bidasoa institutuko irakasleak eta proiektuaren arduradunetako batek. Eta Hezkuntza Sailak onartu egin zien.

Basotik hasita, lan hau guztia egiteko Gipuzkoako Foru Aldundira eta

Nafarroako Gobernura jo zuten, eta berrikuntzara bideratutako Eusko Jaur-laritzako diru laguntza bat ere lortu zuten. Ikerketa honekin, «material didaktikoa osatzeaz aparte, douglas izeia eta alertze japoniarraren ezaugarritze prozesua ere egiten ari gara», dio Barriolak. Lanbide Heziketarako Berrikuntzako eta Etengabeko Ikaskuntza Zentroa, Tknika, ari da proiektua koordinatzen.

EUSKAL HERRIAN ZABALDUTAKO ZUHAITZAK

Eta zergatik bi zuhaitz horiek? Ba «biak ere erakuntzako egituretan oso erabiliak izan direlako. Bi material horiei irtenbide bat emateko aukera izan da». Xehetasun gehiago ere eman dizkigu: «kanpotik izei asko ekartzen da, ezaugarritze prozesu hori egina dutelako eta arkitektoek badakite zura horrek nolako erresistentzia duen. Hemengoaren ezaugarriak, ordea, oraindik ez ziren ezagunak. Alertzea, berriz, betidanik erabili izan den egurra da eta hortxe dago gure basoetan, moztu gabe. Askotan zuhaitza mozteka bezala hartua dago, baina ez da horrela, landatu egin be-

har dira, baina baita moztu ere. Basoetan gaitasun asko sor daitezke, bere garaian ez direlako moztu».

HERRI JAKINDURIA

2011ko irailean hasi ziren proiektuarekin. Douglas izeiaren 45 pietzak lau lote prestatu zituzten, eta alertzearen 7 lote. Eskualdean barna ere ibili dira loteak osatzen, Beran eta Lesakan, hain zuzen. Gainerakoa, Gipuzkoan, Ataunen eta Zegaman osatu dituzte. Behin zuhaitzak marikatuta, moztu egin zituzten eta laborategiraino eramaten diren ohol-enbor bakoitzaren traza-garritasuna egin dute plaka sistema bat erabiliz.

Esperientzia honetan oihangintzaren inguruko herritarren jakituria ere bildu nahi izan dutenez, zuhaitzak ebakitzeko garai egokia zein den kontuan hartu dute. Zuhaitzak negu partean moztu zituzten, eta bi ilargi-fasetan, ilberrian eta ilberheran, «ilargiak egurren kalitatean eragina duen ala ez ikusteko eta eragile biotikoen aurrean laborategian azterketak eginen dira», azaldu digu leitzarrak. Beste teknika bat ere erabili dute, ultrasoinuena: «Europa-



ARGAZKIAK: MARI JOSE BARRIOLAK UTZITAKOAK

Goiko argazkian ultrasoinuen teknika erabiltzen ari dira. Teknika honekin, ultrasoinuek zura zeharkatzen behar duten denbora neurtzen da, zura zutik edo ebakita dagoela. Beheko argazkia, berriz, laborategiko azterketak egiteko probetak prestatzen ari zirela ateratakoa da.

ko herrialde batzuetan basotik egurra moztu gabe sailkatu egiten dute teknologia berrien aurrerakaprobetxatuz. Teknologia horiek ematen dituzten balioen arabera, zertarako erabiltzen ahal den ikusten dute. Zura,

zutik edo ebakia dagoela, sailkatzeko ultrasoinuek zura zeharkatzeko behar duten denbora neurtu dugu. Zurak barreretik akatsak baldin baditu, uhina poliki-poliki joaten da eta egurra ona baldin bada, oso

azkar. Horrela, zuhaitzak basoan berean sailkatzeko ahal dira».

Douglaseko ezaugarritze prozesua bukatuta dagoen arren, alertzearen kasuan, oraindik, neguan botatuko zuhaitzak menditik atera dituzte. «Eguraldi txarrek ezin izan dugu lehenagotik atera», esan digu Bidasoa institutuko irakasleak. Eta orain zerratik pasatuko dituzte, eta handik laborategira joanen dira, laborategiko saiakuntzetarako probetak ere hartu baitituzte.

Douglas izeia eta alertze japoniarraren ezaugarritze prozesua bukatuta, beste egitasmoekin segitzeko asmoa dutela azaldu digu Barriolak: «proiektu berriekin segitu nahi dugu. Lantalde polita egin dugu eta Administrazioak ere lanean segitzeko prest daude, ezaugarritze prozesua egin gabe duten bertze espezie batzuekin egiteko». Suitzako unibertsitateko irakasle batekin elkarlanean ari direla ere aipatu digu. Baina horiek etorkizuneko asmoak dira. Orain, izeia eta alertzearen ikerketa dute eskuartean, eta urte honen hondarrera arte emaitzak eskuartean izatea espero dute.

Mari Jose BARRIOLA, BIDASOA INSTITUTUKO IRAKASLEA ETA PROIEKTUAREN ARDURADUNETAKO BAT

«Bere garaian bota eta ongi erabiliz gero, egurra material ona da»

Gaur egun ongi erabiltzen al da egurra?


Askotan, egurra material txarra dela esaten dugu, beste materialekin konparatuz mugitzen dela, haunditzen dela... Baina egurra material ona da, bere garaian botatzen bada, ongi lehortu eta egitura diseinua ongi egiten bada. Gaur egun, egurra edozein garaitan botatzen da, ekainean, uztailan, abuztuan... eta horrek bere ondorio txarrak ekartzen ditu. Hor ditugu gure inguruan dauden jauregiak, dorretxeak eta zurak oso ongi mantentzen dituzten baserriak. Garbi adierazten dute gure arbasoek ondo ezagutzen zituztela etxegintzan erabiltzen zituzten lehengaien ezaugarriak eta lantze-

ko erak. Negu garaia izaten zuten beti egurra botatzeko eta ilargiari ere begiratzen zioten. Gero, denbora jakin batera, ongi lehortuta lantzen zuten. Gure asmoa aspalditik galtzen ari den lehenagoko jakinduria berreskuratzea ere bada, egurrekin nola lan egin behar den ikusteko. Egurra gaizki erabilia akats asko egin dira. Egurra material bizia da, moztu eta bota arren bizirik segitzen du, eta hori kontuan izanda eta ongi erabilia, ormigoia baino hobeia izan daiteke. Gainera, ingurumena eta garapen jasangarria aintzat hartuz, ez dago egurra baino material hobirik. Egurra badu etorkizuna eta bere bizitza luzea izanen da.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Mari Jose Barriola leitzarra Bidasoa Institutuko irakaslea eta proiektuaren arduradunetako bat.



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Kulturaren izenean

Behin batean hasi zen gizakia guzti hau erai-
kitzen. Pausuz pausu, pixkanaka. Hasieran
inkontzienteki, ondoren beldurraren eragin-
pean. Zirimola erraldoia da egun, hemen eta
orain guztiok harrapatuak gaituen zirimola. Bertan
guztia da onargarria, barruan burutzen diren ekin-
tza zein jokabide guzti-
ak daude onarturik. Noi-
zean behin, nahasme-
naren erdian, desados-
tasuna agertzen duenik
badago, baina jauzi egin
eta bertatik ateraz gero,
ondorio latzak jasatea
da ohikoena. Gizarte-
ren zirimola da, sasi-ko-
munikazio eta sasi-elkar-
lanaren eraginez sortua,
kulturaz apaindua. Zitzu bizian doa, pentsatzeko
aukera gutxi dago gehienetan. Erreflexu hutsez
burutzen ditugu sarri ohiturak, jokabideak, festak,
harremanak, ... Baina batzuetan, beldur pixka bat
ematen du ingurura begiratzeak.

«Erreflexu hutsez
burutzen ditugu
sarri ohiturak,
jokabideak, festak,
harremanak...
Baina batzuetan,
beldur pixka bat
ematen du ingurura
begiratzeak»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Gora gu ta gutarrak

Epaileei oihuka hasten direnean Titin III *pepero*
español lotsagabea den bitartean Irujak karak-
terra atera du; txirindulariak dopina hartu
badu kirol hori susmopean dagoela diogu, baina
futbol talde kuttuna paperetan ateratzen bada, ez
dela deus frogatu. Alabak norbaiti marrako egiten
badio umekeria egin du, baina berari zimiko eginez
gero adin ttikikoen epaitegira joateko gai gara.

Nabarmentzekoak



Joseba LARRALDE
Camille Extremen bigarren

Bizikleta utzi eta mendi
lasterketetan buru be-
larri sartu da kirolari be-
ratarra. Manttala taldean
duen lehen urtean, biga-
rren izan da Camille Ex-
tremen eta garaipena lor-
tu du Ezkabako Trailean.



Mentxu PEÑA
Txupinazoa euskararen alde

Euskaltegiko irakasleak
bota zuen txupinazoa
Lesakako Sanfermine-
tan. Euskararen trans-
misioaren erakusgarri,
ikasleek eskuz esku pa-
satutako kriseiluko sua-
rekin piztu zuen besta.



Bixente IGARTZABAL
Laugarren Altriman proban

Joan den urteko marka
13 minutuan hobetu
bazuen ere, ezin izan
zuen Frantziako Iron-
man gogorraren podio-
raigo lesakarrak. Halere,
master kategorian
bizkorrena izan zen.

Atzera begira → 2003.07.31 / TTIPI-TTAPA 355 zbk.



Genaro Zelaieta futbolari ohiarekin solasean

Liga bi aldiz eta lehendabiziko Superkopa Erralarekin irabazi zuen Genaro Zelaieta beratarrekin izan ginen duela hamar urte. Errealaren lehenbiziko liga hura 22 urte lehenago irabazi zuen hamaikakoan izan zen Zelaieta. Errealazaleek oraindik emozioz gogoratzen dute Xixonen azken minutuan lortutako liga hura. Genarok, ordea, Euskadiko selekzioarekin Irlandaren kontra jokaturako partida gogoratzen zuen bereziki, Espainiako gerra ondotik Euskadik jokatu zuen lehen partida hain zuzen. Argazkian, Lopez Ufarte taldekidearekin ageri zen Real Unionen kontra Irunen jokaturako partida batean.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruna eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurilaritza Kulturako Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Noizbait idatzi izan dut

Auxtin ZAMORA

Duela 200 urte, Napoleonek, Espainian egin gerlaren porrotaren ondorioak eta malurrak, gure eskualdeko eremu eta jendeek behar izan zituzten lazgarriki jasan. Garai honetan, eskuin eta ezker, bai liburu, bai erakusketak bai oroitzarreak antolatuz, nahi da jendeari, zehazki erakutsi, nola, denbora haietako gertakizunak iragan ziren. Ber-oroitzapenarete lan hoiekin, diote, betiko pitokeriak etorkizunean ez daitezen errepikatu, ezagutzen ez dugun historia behar dugula jakin, beste arrazoin mila ere baliezke, gehienetan ekonomikoak eta politikoak, baina, hauek buru gibeletan daude, ez dira garbiki azaltzen.

Orain arte ikusi ditudan argitalpenetan, ez dut kasik nehon ikusi (salbu pertsu batzu Bidarteko Mattin laborariak idatziaz) biktima baten gizakitasunezko elhe bat, ez soldadoengandik, ez eta, gerla jasan dutenen gandik ere. Alta, denak gizakiak ziren. Soldadoak ez ziren bakarrik armada baten automatak, denek familia bat bazuten, pentsatzen dut ere, nehork, bere burua hilik, gerlan, ikusi ez zuela nahi izanen. Non dira ere biktima zibilen orroak, negarrak, lastimak. Non dira pekatu dituztenen lekukotasun publikoak. Zoin liburutan?

Gerlak dituen *collateral* aldameneko desmasiak, nahi ala ez, norbaitek jasan ditu, eta, hori, nehun ez da kasik agertzen. Armadako ekintzak xeheki baino xehekiago maletak betetako dokumentuetan badira, baina, bere etxea soldaduek erre zionaren nigarrak, non dira, nork esplikatuko du, zer jasan izan zuen. Bere izena, menturaz agertuko da zerrenda batean, baina... bere penak, bere desesperazioa... non?

Diru mila emanen da, duela 200 urte gertatu gerlaren *scenario flon flon* eta itxurakerientzat, Hollywood-eko zinema studiotan ikusten diren ber-eraikitze modukoak. Ez dakit horiekin non duten egiazko sentimena, ikusgarri baten gisa, ederra naski, baina neretzat, komedia hutsa! Jende batzuek, naski, lehengo jauntzi eta mozorroekin, haurrak bezala, gerla fiktibo baten egitea, maite lukete. Ahazten dute, zinez odolez hustu direnek, ez zuketela segur preziatuko beren ziminokeria.

Maizetan, gerla egiten dutenek ez dute bizi izan dutenen izigarrikerietaz mintzatu nahi eta beste batzuek, bereziki gerla egin ez dutenek, kirurgian bezala, gerlaren ekintzen izpi guztiak, zehazki, gorpu hil baten barnean bezala, ikeritzen dituzte. Batzuek ahanzi, eta, besteek sobera oroitu! Baina maluruski, denek, iduritzen zait ez dutela gerlari, apologia bat baizik egiten. Mendez mende guduak milaka egin dira, milaka ere liburuak, haukien zehazteko, eta aldi oro, armak ez dira ixildu, alderantziz, gero eta gehiago gehitu eta *sofistikatu*. Garai honetan, duela 200 urte bezala gerla dago non nahi. Dago ere gerla ekonomiko bat, non biktimak ixilean erortzen diren euliak bezala. Gerletan ematen diren diru eta indarrek, miletan miseria gaudituko lukete. Erraten da, 2 tanken prezioarekin Frantziako urteko miseria ezabatu litaikela. Gerletaz ixilik egon edo sobera eleztu izan, 1813ko ospakizunen bazterretik, nahiko nuke utopikoa izan, atzoko gerlak ahanzteko eta biharkoak ez ikusteko, zoin errex litaiketen, egunetik biharrerat armak egitekit mundu osoa geldituko balitz! Xixe!

Pikaroak teilatuan

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Hainbat erranahi ematen zaizkio 'pikaro' so-lasari. Negatiboak aunitz, baina ez denak. Bi ezaugarri behinik behin unibertsalak ditu pikaroak: jatorri umilekoa da, eta intelgentea, bizkorra, beti bertzeak baino pausu bat aitzinera-go. Sinpatia sortzen duten pikaroak gehienbat beraien ginetik daudenei adarra jotzeko gai direnak izan ohi dira, boteretsuenei burua pixka bat erabiliz ziria sartzeko kapazitatea dutenak. Lazkao Txiki bertsolaria izan liteke bat, guardia zibilek stopa gelditu gabe pasatu zuenean galdetu ziotenean: "Es que no ha visto el stop?". "El stop si, pero a vosotros no". Garun eta mingain bizkorrak, uniforme handiusteen aitzinean. Boteretsuei aitzin egiteko hainbat tresna asmatu dituzte umilenean historian, eta horietako bat izan da pikaroaren bizitasuna. Horren adibide bat ikusi genuen San Fermin egunaren bezperan Iruñeko herriko etxeko plazan, eguerdia gainean zenean. Bizardun batzuek kanabera eta pita soilekin Nafarroako handiki guziak muturtuta uztea lortu zuten, 30 metroko trapu bat herriko etxe parean paratu zitelako, mundu guzira plaza ttiki horretara begira zegoenean. Hainbertze lan, hainbertze lege, hainbertze zigor, hainbertze ostia trapu koloretsu hori nafarron bizitzatik desagerrarazteko, eta orain pikaro batzuek teilatua igo eta irigarri utzi dituzte Nafarroako agintari eta uniformedun guziak. Eta boteretsuek trapu hori ez dute desagerrarazi, nafar aunitzek bere izatea sinbolizatzen duen ikurtzat baitute, eta nafar horiei, 30 metroko duintasuna eman diete teilatuko pikarok»

abertzaletzat ez dakit, baina haien burua 'vasquista'-tzat dutenen ordezkariaren erreakzioa; botereari indarkeriaz aitzin egiten zitzaienean gaizki, eta bertzelako moldeek protagonismoa hartzean, pikareskak adibidez, orduan ere gaizki. Jesukristok bezala bi matelak paratzeko ba, ez daude garaiak. 30 metroko ikurrina bat txupinazoan hedatzeak ez du Nafarroa bere hola aldatuko, baina zantzu positibo bat da, agintari atzerakoiak pairatu behar dituzten herritarrei uztailaren 6an irribarre bat sortu baitzitzairen, pikarok bertze behin handikiak irigarri utzi zituztela ikustean.

Irakurleak mintzo

Arzobispo jauna
norenak dira
Urdazubiko
eliza eta
Alkerdiko
kapera?Pello BORDA JAIMERENA
(Urdazubi)

Galdera hau jarriko nion gogotik arzobispo jaunari elizatik ateratzen gan den apirilaren 20an elizako atean, elizan egindako lanak inauguratetik ateratzen. Ez banuen egin, Urdazubiko jendearen errespetuarengatik eta maite ditudalakoz izan zen. Urdazubiarrek, beti bezala lagundu dugu eliza konpontzen, auzolanaren bidez eta diruaren laguntzarekin. Baina urdazubiarrek jakin behar duguna zera da: lehenago laguntzen genuelarik eliza, gure eliza laguntzen genuela, baina azkeneko aldi huntan arzobispadoaren eliza lagundu dugula. Arzobispadoak ez digu deusik erran, zertarako, baina jakin behar dugu eskualdeko eta Nafarroa gehieneko elizak bere barreneko gauzekin, ermita, aunitz apez etxe, baratze eta ondasun gehiago, iraleku, belagi eta abar, bere izenean jarriak dituela. Jakin genuen komunikabideetatik, TTIPI-TTAPAK ere eman zuen horren berri bere egunean. Mendetan eta urtetan publikoak izan ziren ondasunak, 1990

eta 2000. hamarkadetan arzobispadoak inmatrikulatuak edo bere izenean jarriak zituela Nafarroako erregistroan.

Urdazubiko eliza eta Alkerdi auzoko kapera, 2004ko buruilaren 29an arzobispoak bere izenean eman zituen egun berean, auzo herriko Zugarramurdiko eliza eta eskualde huntako Aranoako San Martin eliza, Arantzako Asuncion eliza, Azpilkuetako San Andres eliza eta San Francisco Javier ermita, Beintza-Labaiengo San Pedro eliza, Berao, San Esteban eliza, San Martin ermita eta Nuestra Señora de las Mercedes ermita, Berroetako Lupegiko arboldegia, Doneztebeko San Pedro eliza, San Migel iralekuko hiru partzela (429,991 eta 8.180 metro koadrokoa), Erratzuko San Pedro eliza eta elizako lur-eremua, Elgorriagako San Pedro eliza, Elizondoko Santiago eliza eta Erabetako eremua, Etxalarko Andre Mari eliza, Goizuetako Asuncion eliza, Igantzioko San Migel eliza, Iruritako Salvatore eliza, Iturengo San Martin eliza, Lekarozko San Bartolome eliza, Legasako Santa Katalina eliza, Narbarteko San Andres Eliza, Sunbillako San Juan Bautista eliza eta Zubietako Santa Maria eliza.

Arzobispadoak lana ezkutuan edo isilka egin duela badakigu.

Badakigu aunitz apez ez daudela ados arzobispadoaren joera-



Urdazubiko eliza goitian eta Alkerdiko kapera behegian.

ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

rekin. Erran nahi duten bezala, mendetan eta urtetan guk zaindu eta konpondu ditugun eliza eta ermita ez direla gehiago gureak jakin behar dugu urdazubiarrek, 2004ko buruilaren 29an arzobispadoak zer egin zuen apezak ez gintuen deusik erran, baina elizako konponketa lanak egiteko momentuan apezak familia guzietan bidali gintuen, ohitura xaharrean, idatzi bat laguntza eskatzeko eta dirua emateko. Urdazubiko familiak, 150.000 euro inguruan eman ditugu eta herriko udalak 240.000 euro. Udalak, diruaren truke eskuratu du apezaren etxea, elizari lotua dagoena, aldaire nagusiaren bertze aldean, apezaren baratzea eta bordaxka bat, baratzearen ondoan, lehengo aroztegia izana. Hauek apezak atera zituen saltzera eta udalak erosi ditio. Diru hori eliza konpontzeko erabili du apezak, baina nik galdetzen dut: udalak erosi dituen apezaren



etxe, baratze eta borda ez ziren betidanik gureak?

Nere pentsamendua da udalak erosi duela gureak ziren hiru ondasunak. Orain udalak erraten ahalko du arras gurea dela, zeren beti apezaren esku izan ziren.

Apezaren etxeak bazuen 25 bat urte hurbil itxia zegoela, apeza handik gan ezkerotzik. Etxea nahiko hondatua dago. 20 urte luze horietan ongi etorria izan zen, adibidez, familia behartsu batendako prezio egoki batean alokatu izan balitz. Pentsatzen dut udalak erabilera on bat emanen

diola. Ongi da udalaren eskuetan gelditu direla ondasun horiek, berdin bertze norbaitek erosi balitu, ez ziren gehiago gureak izanen. Betidanik ondasun publikoak izan zirenak Nafarroa eta estatu osoan eliz, ermita, apez etxe, katedral, lur eremu, eliz barneko gauzak eta bertze hainbat ondasun bezala, herritarrenak ziren. Lekuko jendearenak, dudarik gabe, lekuko jendeak eginak eta gero zainduak eta mantenduak. Ondasun publikoak ziren eginez geroztik, mendetan eta urtetan. 1997an gobernuak ateratako lege baten bidez, estatu osoan eta

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttiipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Irakurleak mintzo

bereziki Nafarroan elizak bereak bezala inmatrikulatu edo bere izenean jarri ditu. Behar bada batzuk erranen dute, baina eliza ez dute bizkarrean hartu eta eramanez? Lekukotako Elizondoko eliza beheitiko karrikan zegoen, herria handitzen ari zela eta eliza tikiiegi gelditzen ari zela eta orain dela 100 urte eskasak eraman zuten orai den lekura, gaineko karrikara, eta egin zuten eliza handiagoa, dorre bera-ekin eta bertze dorre bat berdina eginez. Bada-ira elizak Ameriketara eramanak ere.

Zergatik arzobispadoak bere izenean jarri dituen eliz, ermita, katedral eta bertze aunitz ondasun? Ez dakit baina arzobispadoaren joerarekin ados ez gauden herrietan beharbada ez gure onartu behar gure herrietara etortzea eta konfirmazioneko sakramentua ematea, ez dugulakotz zuzen ikusten gure gazteei konfirmazioneko sakramentua ematea, gure eliza eta ontasunak kendu gaituen esku berak.

Urdazubiarrek eskatzen diogu arzobispadoari mende eta urteetan eliza eta ermita zaindu eta mantendu dituen jendearen errespetuarengatik, 2004ko bu-ruillaren 29a aitazineko egoera berean uztea eliza eta kapera, betidanik guziz gure kapera aunitz gurea sentitzen dugulakoz. Orain dela 14 urte auzolanean konpondu ginuen eta dirua dena urdazubiarrek eman ginuelako. Horregatik uste dut, urdazubiarrek ahalegina egin beharko genukeela eliza eta kapera berresku-razteko.

Lastima

Juainas PAUL ARZAK

Lau bat hilabete izanen dira baikorregia azaltzeak lotsa moduko zera bat sortzen zidala esan nuenetik. Hai-ek garaiak! Gaur egun lastima dut nagusi. Zuretzat eta niretzat. Ikaragarri handia, du- gun egoerak eta eza- gutzen ditugun aktore- ak, ustez, ez dutelako beste aukerarik uzten. Lastima, ezinezkoa zai- dalako konponbidea argitza. Eta opor garai- ek, besta itxurek eta abarrekoek ez dutelako batere laguntzen. Are makurrago! Zirikatzen banauzu alderantzizko papera jokatzen dutela esanen dizut. Hori bai majo frogatu dugula! Zer ez dugu borroka toki, aitzaki edo okasioa... motiboa bihurtu? Kale- ak, plazak, elizak, etxe- ak, mendialde eta zela- iak, kirol eta kulturako aretoak...mota guzietako- koek balio izan dute hor- rretarako, muturka ari- tzeko. Eskolak eta uni- bertsitateak, teorien, ja- kinduria zabaltzeko, he- zi eta ez dakit zenbat gauza on lortzeko balio beharko omen lukete- nak, maizegi eztabaida gogor, hitzeko kolpe eta kolpe fisikoen are- to eta zangotrabaren paradisu bihurtuta ikusi ditugu. Zenbat hezkun- tza plan ezagutu ditu- zu? Batzuen ustez, zer ez da konpontzen es- kolako heziketarekin? Beste batean ariko ga- ra luzeago, behar bada, honetaz. Eszenatoki bitxi- ena, agerraldi ede- rrenak, dena den, lege- biltzarretan ikusiko di- tugu eta mundu hori is- latzeko betetzen diren komunikabideetan.

11 galdera labur

Nor dugu Oscar Goikoetxea?

Berako 38 urteko gaztea. Madril aldean, aktore, esatari eta bikoizle lanean dabilena.

Zergatik joan zinen Madrilerara?

Nik aukeratutako arloan, lanerako aukera gehiago daudelako hemen. Lanbide zaila izan arren, poliki poliki banoa aurrerantz, hiru antzerki taldetan eta telesail, laburmetrai eta filmak grabatzen ari naiz.

Oholtza gainean aritzeak zer ematen du?

Adrenalina, bertigoa... Lehenengo aldiak zailak izaten dira, baina gero egunetik egunera, gehiago har- rapatzen zaitu.

Noren paperean ariko zinateke gustora?

Baten bat hauta- tzeagatik, Jack Nicholsonek El resplandor edo Mejor Inposible filmetan eginda- koa edo Harrison For-



Oscar GOIKOETXEA → Madrilen bizi den aktore beratarra

dek Blade Runnerren egindakoa. Antzezten edo gitarrarekin, nola gustorago?

Bietan. Musika hobya da, lagu- nen artean ondo pasatzeko mo- dua. Eta antzezte, gogorrago izan arren, nire bizitzaren parte garran- tziatsua da.

Madril edo Bera?

Lan arloa Madrilen, baina familia, lagunak eta oporrak Beran! Herria- rekiko loturak ez ditut inoiz galdu.

Zer botatzen da faltan Madril- en bizita?

Familia, kuadrila, hondartza, men- diak...

Bestetan herrira itzultzen zara?

Bai urtero ahal badut, Ttirtirikuen blusa jantzen dut gustora.

Bestetako egunik gustokoena?

Txupinazoko eguna, kuadrilako baz- karia izaten dugu eta aspaldian iku- si gabeko lagunak elkartzen gare- lako.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Bada etorkizunik? Egoera zaila da baina, gure esku dago aldatzea.

Amets bat?

Montxo Armendariz zuzendariare- kin Baztan-Bidasoan grabatutako film batean protagonista izatea. Gu- re ideosinkrasia beste herrialde- tan erakusteko modu polita litzateke.

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut
Sakelekoa: 637 836 023 · LESAKA

kulki
zure herriko jailetan
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

TELLERÍA
Kalitatezko aitzarien 700 m³ko erakustokia prezio interesgarriekin
• Neurria eginak
• %100 Haritz Trinkoa
• Enpotratuak
• Sukaldeak
• Txokoak
IZUGARRIZKO ESKAINTZAK
BERRIOPLANO (Nafarroa) · Tel. 948 30 35 04 · 699 43 30 87 · www.mueblestelleria.com

KULTURA

EUSKARA → NAFARROAKO EGOERA KEZKAGARRIA

Oinarrizko osasun zerbitzuak osorik euskaraz ez direla ematen salatu du UEMAK

Mankomunitateko kide diren Nafarroako 14 udalerrietan, zazpi pediatretatik lauk ez dakite euskaraz

TTIPI-TTAPA

UEMAk udalerrri euskaldunen erabateko euskalduntzea bultzatzen dihardu. Udaletatik abiatu, eta herritarrek eremu pribatuan zein publikoan euskaraz bizi ahal izatea du helburu mankomunitateak. Mankomunitatean biltzen diren udalerrietako oinarrizko osasun zerbitzuetako hizkuntza errealitatearen berri eman dute, familia mediku eta pediatren inguruko datuak. Agerraldi-

an, Maren Belastegi UEMAKo lehendakariarekin batera, eskualdeko hautetsiak ere izan ziren Nafarroako ordezkari, Marisol Taberna Berako alkatea, Garazi Taberna Berako zinegotzia eta Andone Salbarredi Leitzako zinegotzia. Egoera oso kezka-garria da Nafarroan. UEMAKo kide diren 14 udalerrietako bakar batek ere ez dauka oinarrizko osasun zerbitzua bere osotasunean euskaraz emateko bitartekorik. Beran erraterako, herritar guztiak daude, bai familia mediku baita pediatrarekin ere, gaztelaniaz hitz egitera behartuak.

Familia medikuen kasuan, egoera hobea bada ere, hiru udalerritan mediku erdaldunak egoten jarraitzen dute. Eta horietatik batean, guztiak dira erdaldunak gai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Uztailaren 11n UEMAK egindako agerraldian Berako eta Leitzako udal ordezkariak izan ziren.

nera. Familia medikuen kasuan, ordezkapenen gaiak ematen ditu arazoak normalean, izan ere, ordezko medikuak datozenean, gehien gehienetan erdaldunak izaten baitira. Eta horren adibide ekainean bertan Baztanen gertatutakoa. Medikueuskaldun baten tokira erdalduna bidali dute, eta oso kexu dira herritarrek.

Pediatrei dagokienean, Nafarroan UEMAKo kide diren 14 udalerrietan 7 pediatra aritzen dira, eta horietatik 4k ez dakite euskaraz, hau da, haurren ia %100 euskalduna den eremuan, pediatren %71k ez du haurrek egunerokoan darabilten hizkuntzarik ezagutzen.

UEMAk Osasunbidearekin bilera egin zuen udalerrri euskaldunetako egoeraren berri

eman, eta gutxiengo batzuk adosteko helburuz; eta egia da bilera sintonia onean joan zela eta egindako eskaerak egokiak iruditu zitzaizkiela. «Baina herritarrek hori baino zerbait gehiago behar dute. Hitzetatik ekintzetera pasatzea. Eta hori ez da gertatzen ari dena» adierazi dute UEMAtik.

Osasunbideak bere burua euskalduntzeko planik ez du, ez eta aurrera begira egiteko asmorik ere; beraz, sortzen diren arazoei irtenbidea bilatzeko oinarrizko arazoak topatzen dituzte eta topatzen segituko dute. Horrela, Nafarroako udalerrri euskaldunetako herritarren hizkuntza eskubideak urratuak dira, etenik gabe.

Euskal Autonomi Erkidegoko datuak Nafarroakoak baino hobek

izan arren, udalerrri euskaldunenetako herritarren oinarrizko zerbitzuak euskaraz emateko gaitasun eza agerian uzten dute, eta horrek herritar askoren hizkuntza eskubideak urratzea dakar.

Gauzak horrela, UEMAKen ustez «beharrekoa bezain presazkoa da udalerrri euskaldunetan osasun zerbitzuak bere osotasunean euskaraz bermatzea». Horretarako, euskara plan sendoa diseinatu eta garatu beharko lukete, bai Osakidetzak eta baita Osasunbideak ere. UEMAK bere aldetik, hori horrela izan dadin lan egingen du, bi erakundeekin eta beharrezko diren beste hainbatekin harremanak eginez eta elkarlanean arituz, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuak izan daitezken.

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak

948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

Xirell

Aitzate 1 - BERA
Telefonu 948 631 468

bixkiak
KIROI ETA MODAKO
erropa denda

%10eko
DESKONTUA

ttipi baztela

BERAKO BESTAK 2013

Uztailak 27, larunbata

17:00 Txirrindularitza Proba. X. Berako Saria. Kadeteak. Antolatzailea: Gure Txokoa Elkar-
tea. Luzera: 53,5 km. Irteera: 17:00 Helmuga: 18:30 IBILBIDEA: BERA (Bidasoa karrika) -
Agerra - Berrizaun - Bera - Lizuniaga - Zia Auzoa - Malet - Bera - Agerra - Berrizaun - Be-
ra - Lizuniaga - Zia Auzoa - Malet - Bera - Agerra - Berrizaun - BERA (helmuga) 17:45 He-
rri kirol jaialdia Toki Onako patioan (euria eginez gero, eskolako pilotalekuan). 1.Zatia: Pro-
ba konbinatua: kokkor biltzea, zaku lasterketa, korrika, arpana eta aizkora. 2.Zatia: txinga
(40 kg), ingudea eta harri jasotzea. Antolatzaileak: Nafarroako Herri Kirol Federazioa eta
Berako Herri Kirol Taldea. 19:00 Tonbola besta Altzateko plazan (euria eginez gero, Eztegarra
pilotalekuan). Antolatzailea: Berako Larun-Haizpe merkatari, ostalari eta zerbitzu enpre-
sen elkarte.

Uztailak 28, igandea BIZIKLETA EGUNA

10:00 Plater tiroa foso modalitatean. Parte-hartze librea. Antolatzailea: Berako Ehiza eta
Arrantza Elkartea 10:30 Adin guzientzako bizikleta martxa Ondotik, haur eta gazteentza-
ko jolasak bizikletarekin eta opari zozketa Toki Onako patioan OHARRA: Euria eginez gero,
programa bertan behera geratuko litzateke.

Uztailak 29, astelehena

20:00 Bidasoaldeko XVII. Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdia eskolako frontoian. Talde
parte-hartzaileak: Yuan Yuan (Taiwan), Miras (Tatarstan) eta Eraiki Dantza Taldea (Beho-
bia; Irun) Antolatzailea: Eraiki Dantza Taldea. Laguntzailea: Berako Udala.

Abuztuak 1, ortzeguna

13:00 Familia bazkaria. Antolatzailea: San Jose Zahar etxea



ERREKALDE
Plater konbinatua
PATERAK
ONGI PASA BESTAKI
TFONA: 948 630 254 BERA

ERROTASAR
harategia
Bertako
produktuak
www.erotazarafesanos.com
Eztegara, 3 • BERA • T. 948 630 068 • F. 948 631 057
e-posta: errotazar@telefonica.net

GANIX
FIAT zerbitzua
948 63 06 69
Bujandeta, 6 BERA (NA)

SEGUROS BILBAO Ongi
Grupo CATALANA PASA
OCCIDENTE bestaki
iB Iriarte-Etxandi
artekaritza-aholkularitza
Kantónberrí, 1 • BERA • 948 631 369 • Fax: 948 630 383

Instalaciones JAURENA, S.L.
Instalazio elektrikoak
etxe-hesnak
sukaldeko altzariak
antzerak
Julio Caro Barrio, 6 • 31780 BERA • Tel./fax: 948 631 217

Kotai
Kortinak
Estoreak
Etxerako
ehungintza
osagarriak
Bidasoa karrika 14 • 31780 Bera • T. / F. 948 631 660
ongi pasa bestaki

Luxoia ongi pasa
bestaki
ostatua • jatetxea
94863271 • Itzea Harria, 2 • BERA

BERA
Berako udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
**GORA BERAKO
BESTAKI**





HORTZ-Klinika
Iker Ribisu Altologire

948 631 631



Aitzinaldeak, angeluak, pareta aitzinekoak
leihoak, ateak, arkuak, pilareak,
biminiak, erlaizak, moldurak
zokaloak, hilariak, marrazkiak

ongi pasa bestaki!

Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com • info@antzuzelai.com



TXAPA eta PINTURA

Alkaloja ind. Alasta, 4 • Tel: 948 630 373 • BERA



**BORTZIRI
UNSION ANAIAK**
Sukalderako altzariak

ONGI PASA BESTAKI!
Bereau etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 206 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511



**Iñaki
Errandonea**
Tel.: 948 630 982
Fax: 948 631 142

ONGI PASA HERRIKO BESTAKI

Ziobi 11.
Alkaiagna ind.
31789 BERA

FOTO-ERREZUMIKI **GOIKO** ongi pasa

Alzate, 32 - BERA
Tfno: 948 630 515
Mugikorra: 609 663 172
fotogoko@fotogoko.com




Kalash JOYEROS

Kanttonberri, 6 | BERA | 948 630 751
Merkatarien K., 7 | DONEZTEBE | 948 451 519

ongi pasa bestaki!



FONTANERIA
Carlos Pacheco

C/Leguia nº 19
31700 BERA (Navarra)
Telefono: 637 15 11 70



KIMAKETA BEREZIAK: 14 metroko garablaekin
HIDROEREINTZA
kimaketak | zerrakurak | mantenimendua | ...

Zuhaitzak Zuhaitzak

FERMIN MARITORENA LARRALDE
Hegoalde karrika, 33 • 31780 BERA (Nafarroa)
666 407 214 • 948 631 199

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berrri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

ONGI PASA BESTAK

LESAKA: Eltzeta 20 behea
Tf/Fax 948637050
BURLATA: La Viña, 4
Tel. 948 133 328 • Faxa: 948 133 713
amala@artekari.com

Domoservice
servicios informáticos y domoticos

- Alarmak
- Bideo-zaintza
- Automatismoak
- Informatika
- Multimedia

Alzate 18 behea | BERA
T. 948 630 862 | 672 006 560
info@domoservice.es
www.domoservice.es



Churrut
hoteleko
jaketxea
(LENKONEA)

**BERAKO BESTETAKO
DASTATZEKO MENUA**

Txipirotiak plantxan dituen entsalada epela,
hostorea bielda eta barazki beteta
Mariskoz betetako legatza saltsa amerikarrarekin
Txerri iberiko-masaila bere saltsan eta
Etxeko askotariko gozoak
Ardoak (Nafarroako JD). Kafeak eta BEZ barne.

PREZIOA: 28€

Foruen plaza | BERA | tel.: 948625540
www.hotelchurrut.com

BERAKO BESTAK 2013

Abuztuak 2, ortzirala BEZPERA

10:00 Herri gosaria txosnetan 12:00 Besten hasiera. Altxaferoa eta ezkil jotzea. Ttikien-dako goxokiak. Ondotik Erraldoi eta buruhandiak karrikaz karrika, Incansables Txarangak eta Ezpelur gaiteroek lagunduta. 17:00 Incansables Txarangak San Jose Zahar Etxean. 18:00 Kukaña Illekuetan, Incansables Txarangak alaiturik. 19:00 Berako txistularien kalejira. Illekuetatik San Esteban Elizaraino. 19:00 Gaztexteban igoera. Pregoia, bertsoak eta txalaparta. 19:30 Kontzertua: Joseba Irazoki gitarra eta bonbo. Antolatzailea: Beragazte. 20:00 Gure Txokoa Dantza Taldearen jaialdia Eztegarra pilotalekuan. 00:00 Kontzertuak: Sorotan Babies eta Morrophine Altzateko plazan. Antolatzailea: Beragazte. Egunean zehar Incansables Txaranga karriketan ibiliko da.



Abuztuak 3, larunbata SAN ESTEBAN EGUNA

09:30 Txistulariekin argisoinua; Ezpelur gaiteroek herrian barna. 10:30 Udalbatza, txistulariak eta makil dantzariak Berako bandera aitzinean dutela, Herriko Etxetik San Esteban elizara abiatuko dira, Berako abesbatzak lagundurik emanen den meza aditzera. Ondotik Gure Txokoako dantzariak Berako Makil dantzak eta Bordon dantza dantzatuko dute. Gero Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolarien saioa. 17:00 Ezpelur gaiteroek San Jose Zahar Etxean. 18:00 Gure Txokoa Dantza Taldeak Berako Aurrekua dantzatuko du Herriko Etxeko Plazan Gero Berako Bandaren kontzertua. 21:00 Dantza herrikoiak Altzateko karrikan (fandangoa, Larrain dantza, ...) Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. 00:00 Kontzertuak: Kaskezur eta Zakillers Altzateko plazan. Antolatzailea: Beragazte 01:00 Entzierroa txosnetatik hasita. Egunean zehar Incansables Txaranga karriketan ibiliko da.

Artieda M.
LENTZERIA • MERTZERIA
ONGI PASA BESTAKI
Kanttonberri 2 • BERA • 948 625 411

Ongi pasa bestaki
Axalea
Alzate 26 | BERA | 948 631 121

GORA SAN ESTEBANI!
borzrud
948 631 521
material gutxiesten inaztiatsen duzu
Raminetah 7 aparteko artibuluak

besta zoriontsuak opa dizkizuegu
BOTXO
ibaigogortza@hotmail.com - 948 630 052

ongi pasa bestaki
edurne
HAUR ARROPADENDA
Alzate, 20 • BERA • 948 631 491

elika
Dietetika - elikabera
Iñaki Andueza Larra
Izeta, 6 behe • BERA • T. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

- Anikularitza dietetiko nutrizionala personalizatua
- Gorpuztuzko konposizioaren analisia: ura, muskuluak, gantzak...
- Dietetika: hipertentsioa, hiperkolesterolemia, diabetesa, arazo digestiboak...
- Kolesterola eta glukosa kontrolak

ongi pasa bestaki
ELKAR
liburudenda
Testu liburuak
Aldizkariak eta prentsa
Eskolako materiala
Fax zerbitzua eta fotokopia
Eztegarra, 18 • T. 948 630 691 • BERA

bp
GASOLINDEGIA
DENDA | OGIA | PRENTSA
Ordutegia: 06:00-22:00 egunero
URTE OSOAN IREKIA
Zalain Industrialdea | BERA
948 630 249

ONGI PASA BESTAKI
ETORRI eta ezagutu gure ESKAINTZA BEREZIAK

ttipi-ttapa 948 63 54 58
kulturtkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak,
bisita txartelak, egutegiak...
inprimitzen ditugu

MANUEL LANZ
AHOLKULARITZA

ongi pasa bestak!

Eztegara, 22 - 1Esk - 948 631 108 - BERA

Pizzio

tabako-denda 2. zbk
ongi pasa bestak!

Altzate, 26 - Tel. 948 630 788 - 31780 Bera

ML

ESTETIKA - ILEAPAINDEGI MISTOA

depilazio elektrikoa
ileapaindegia - solariuma
depilazioa - masajea
manikura - pedikura

ongi pasa bestak! **ordua eskatu**

Iturlandeta, 4 BERA T. 948 630 483

Javier Manterola
Tekniko instalatzailea

- iturgintza
- gasa
- berokuntza

© 629 449682
Iturlandeta 4, beheko • BERA

Lizardi
TELEKOMUNIKAZIOAK

BERA | 670 415 720 | lizarditeleko@gmail.com

ZENTRU
LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA
Nekane Ordoki Gonzalez

- * Ahozkopen zailtasuna
- * Gauzak kontatzeko zailtasuna
- * Irakurketa arazoak
- * Idazketa arazoak
- * Toteltasuna "tartamudeo"
- * Ahots arazoak
- * Arnasketa arazoak

EuskaraZ/Erdozaz

646 894 332
BERA

MARMOLES
marmolesalkaia@gmail.com
ALKAIA GA, S.L.

Gisa guzietako lanak marmol eta granitoan

ONGI PASA BESTAK!

Alkaia ind. Ziobi, 11 (sarrera Beratik) - LESAKA
Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063
Mug: 609 207 731

ELIZALDE benta

Ostatua | Jabetzea

Besta on batzuk pasat!

948 631 024
Ibardin | BERA

DENDA

GOYA

ARROPAK
Gaitzak - Gonak - Jauntziak
Kamisetak - Blusak
Txamarrek - Txubaskeroak
Batak - Kapelak
Euskal arropa
Lanerako arropa

**Bilatu gure
%50eko
deskontuak**

ETXERAKO PRODUKTUAK
Kortinen konfekzioa
Toallak - Alfonbrak
Mandireak - Mantak
Edredoiak - Nordikoak
Nordikoen fundak
Lanparak - Menajea
Burdindegiko erremintak
Oparitzeko detaileak

ZERBITZU PERTSONALIZATUA,
KALITATE ETA PREZIO
EZIN HOBEAN

Ongi pasa bestak!

Altzate, 5 - BERA
T. 948 630 083

BERATARRA
ERAIKUNTZAK

Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
DONEZTEBE

Jose Ignacio Maritorena Larralde
670 489 337

ONGI PASA BESTAK



ongi pasa bestak!

BIZIKLETA
SALMENTA ETA
KONPONKETA

948 631 218

Kantlonberri 1, BERA

KATEA-BIKE



BERAKO BESTAK 2013

Abuztuak 4, igandea

09:00 Incansables Txaranga Dornakun ibiliko da, eta Ezpelur gaiteroak Zalain auzoan.
11:30 Berako igerilekuan haur eta gazteentzat XXVI. Igeriketa Txapelketa. Antolatzailea: Gure Txokoa . 13:00 Kukaña, Illekuetan 13:00 Ezpelur gaiteroak Ibardinen. 14:00 Gaztetxe bazkaria Altzateko plazan, Kotte akordeoilariak girotua (Sarrerak salgai Katakua eta Errekalden). Txartelak: 10€ (langabetu eta ikasleentzat: 6€ 17:00 Incansables Txarangak San Jose Zahar Etxean joko du. 18:00 Pilotari profesionalen arteko partidak Eztegaran. Aspeku punta-puntako pilotariak. Sarrera: 25 €. Salgai Agara prentsan eta Zalain jatetxean. 18:00 Haurrentzako berbena: Sukaldean besta! eskolako pilotalekuan 19:30 Migattuak Berako plazan. 21:00 Dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Altzateko karrikan. 00:00 Kontzertua Altzateko plazan La Jodedera taldearekin. **Ondotik** Dj Elvis Caino Antolatzailea: Beragazte Egunean zehar Incansables Txaranga karriketan ibiliko da.



Abuztuak 5, astelehena

karrik auzo horretan lan egiten duenik: Udalak ere erabakiko du egin behar diren bertze lanak eta, taldeak osatu, eta lan horiek egitera bidaliko ditu.

Aurten egin beharreko auzolanak 5 ordukoak izanen dira, urte er-

ditik aitzinera hasi direlako, baina hurrengo urtetik aitzinera urtean 10 ordu egin beharko dituzte herritarrek.

Norbaitek auzolan bat egin nahi badu, Udaletxera deitu behar du 48 ordu lehenago, ize-na eman eta asegurua-

ri parte emateko. Baita Udalak egin behar duen lana onartzeko ala ez, noski: Udalaren onarpenik gabe ez da auzolanik egingen.

Gure herri eder hau oraindik ederragoa utzi behar dugu guztion lanari esker!!!

An advertisement for Bortziriak expert kitchen appliances. The image shows a modern kitchen with white cabinets, a central island, and built-in ovens. A large red starburst graphic in the top right corner contains the text: "%20 DESKONTUA SUKALDE ALTZARIETAN". At the top left, the logo "BORTZIRIAK expert" is visible. At the bottom, contact information is provided: "Bildasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com".

ARANTZA

KULTURA → ABUZTUAREN 24KO KONTZERTUA

Kaskezur, Gibelurdinek, Xutik, Kop eta DJ Elepunto Arantza Rocken izanen dira

Eskualdeko denda eta ostatuetan, boletoak euro batean salgai daude

Nerea ALTZURI

Aitzineko alean aipatu bezala, Arantza Rock abuztuaren 24an izanen da. Arratsean kontzertuak izanen baldin bada ere, ilunabarrean kostaldeko nafarrekin poteo musikatu iraganen da. Horrela, bertaratutakoek edizio hau girotzen hasteko modua izanen dute. 22:30etik aitzinera, Kaskezur, Gibelurdinek, Kop, Xutik eta Dj Elepunto musika taldeen emanaldiak izanen dira plazan. Sarrera ez da ordaindu behar.

Arrats guzian, txosna eta ogitartekoak izanen dira eta iaz bezala, boletoak ere salgai daude euro batean eskualdeko denda eta ostatuetan. Sari potoloak jokoan daude: Euskal



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Giro ederra izanen da aurtan ere Arantza Rock jaialdian.

Herriko landetxe batean bi lagunentzako as-teburu bat, Elgorriaga bainuetxean bi lagunentzako sarrerak eta Aterpean bi afari. Abuztuaren 24ko arratsean eginen da zozketa eta saridunak www.arantza.eu web orrian, Xorroxinen eta Ttipi-Ttapan jakinaz iraziko dira. Saridunek hilabete bateko epea izanen dute agertzeko.

Dagoeneko Gazte Asanblada burubelarri ari da egunari azken ukituak ematen.

Lehenik ordea, Ballekasko bestak ditugu larubat honetan. 11:30ean txupinazoa botako dute. Ondotik, trikitilariak eta dantzariak ibiliko dira. 14:00etan bazkaria eta bazkalondoan bertolariak ariko dira. Gero,

jokoak. 19:00etan musika Beñatekin. 21:30ean zingar-jatea eskainiko da eta ondotik, berriz ere Beñaten musikarekin dantzatzeko aukera izanen da.

Bestarako gogoa duenak beraz, badaki: Beheko Pisutako beste-kin hasi, amabirjinekin segitu eta abuztua Arantza Rock-ekin akautu!

Oporraldea Brava itsasaldean

Joan den ekainako kruzeroa ezin izan zuten egin eta oporraldi horretarako jarritako dirua itzuliko zaie bidaiariari.

Gertaturikoa gibelean utzi eta bertze bidaia labur bat antolatu da Brava itsasaldera edo Costa Brava delakora.

Abuztuaren 25etik 30era izanen da.

Autobusez, bidaiariak dauden herrietan geldialdiak egingen dira.

Ampuriabrava, Rosas, Cadaques, Bartzelona eta Carcassone ezagutuko dira bertzeak bertze, eta hiri horietako gaztelu, ardandegi, parke, paraje... eza- gutuko dituzte.

Bidaiaren prezioa 495 eurokoa da pertsonako eta autobusa, aseguru eta BEZa, egin beharreko zenbait bisita eta otordu, bidaiko gidaria, egonaldiko hotela... sartzen dira prezio horretan (Informazio gehiago Martin Legarrak).

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/tpipi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

intzuri
OPTIKA

%10eko
DESKONTUA

GIZARTEA → TURISMOARI BEGIRA

Udako bisita gidatuak antolatu ditu aurten ere Bertizko Partzuergo Turistikoak

Zenbait bisita egiteko aitzinetik erreserba egin behar da Partzuergoaren telefonoan

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoaldea hobeto ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu aurten ere Bertizko Partzuergo Turistikoak.

Almandoztik Belate-rako Donejakue Bidea eta naturgune babestua ortzegunetik larunbatera, Etxalarko herrigunea astelheenetik larunbatera, Donamariko jauregia astearte eta ortziraletan, Elizondo asteartetik larunbatero edo Leurtzako urtegi-tako Aisiarako Natur eremua egunero bisita daitezke. Horretaz gain, aitzinetik erreserba eginez, Igantziko San Juan Xarreko erreserba naturala eta iturri miragarriak, Baztango monumentu megalitikoak, Arizkungo Bozate auzoa eta Santxotena parke museoa, Amaiurko herria, gazteluko aztarnak eta herrira bisita gidatua eta Lesakako herria bisita daitezke ordutegi ezberdinetan.

Batzuetan alde zurrik erreserbatu behar da, 948 592323 telefonora deituz. Informazio gehiago www.consortio bertiz.org webgunean.



Leurtza inguruan bisita gidatuak eskainiko dituzte egunero. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Auto Asegurua



" Zure autoak aseguru on bat merezi duelako..."

Javier Aramendiak, Caja Rural-Seguros RGA taldeko nafar txirrindulariak, errepidean erakusten du ez dela gutxierekin konformatzen. Ez bizikletan, ezta bere autoan ere.

Auto Asegurua Rural Kutxan duela, hots, Rural Kutxa Taldeko Seguros RGA Aseguruen estaldura zabalarekin eta baldintza ekonomiko onenekin.

...bat egin ezazu talde seguru batekin"



Galdetu gure edozein bulegotan. **Aseguru on baten atzetan talde on bat** baitago beti.

Sigueros. Funciona.

Talde seguru bat

SUNBILLA

GIZARTEA → UZTAILAREN 27AN

Ulibeltzak elkartearen urteko batzarra larunbatean eginen dute

Bestetako zopetako txartelak salduko dituzte bilera ondotik

Maider PETRIRENA

Ulibeltzak Elkartek urteko batzar orokorra eginen du uztailaren 27an, larunbat arratsaldeko 6:00etatik aitzinera. Gai ordenari dagokionez, joan den urteko akta irakurri eta egoki ikusten badute onartuko dute lehenik. Gero, 2012ko kontuak aztertu dituzte, elkarteko obrak ere izanen dituzte hizpide eta 2013ko bestetako programa ere landuko dute, eskari eta galderen txandari ekin aurretik.

Bilera bukatutakoan aipatu beharra da bestetako Zopetako txartelak salgai egonen direla Ulibeltzak Elkartean bertan bazkideentzat. Uztailaren 28tik aitzinera gainontzekoentzat salgai jarriko dituzte herriko ostatueta. Txartelaren prezioa 20 eurokoa da.

Herrera anaiak bikain

Herrera anaiek Caja Ruraleko BTT martxan

parte hartu dute eta irailen bukatuko dute denboraldia. Ekainaren 16an Tuterako lasterketan parte hartu eta bik podiuma lortu zuten. Enekok, 3. postua lortu zuen eta Koldo anaia berri garaile izan zen.

Ekainaren 23an, Lizarran izan zuten karrera. Horretan Enekok ez zuen parte hartu eta Koldok berri ere lehen postua lortu zuen.

Ekainaren 30ean berri Enekok Open Euskadi 2013an parte hartu zuen Zallan. Zorionak hemendik Herrera anaiei eta segi dezatela horrela.

Unai Bertiz Nafarroako txapeldun

Kirol arloan segituz ezin utzi Unai Bertiz aipatu eta zoriondu gabe. Seigarren urtez jarraian Nafarroako Harrijasotzaile txapelketa txapelduna suertatu delako Iruñeko sanferminetan. Pronostikoak bete zituen eta jaun eta jabe izan zen proba osoan zehar. Denera 6.215 kilo altxatu zituen (zilindroa 22 aldiz, kubikoa 14 aldiz eta bola 18 aldiz).

Zorionak berari ere eta animo!



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Uztailean eguraldi bikaina egiten ari da igerilakurako

Ekainaren 15ean ireki zituzten igerilekuak, baina eguraldiak askorik lagundu ez zuenez ekainean ez genuen bainu askorik hartzeko aukera izan. Uztailean berri, bikaina doa eta gozatu ederra ari gara hartzen. Ea horrela segitzen duen!



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eneko Herrera hirugarren izan zen Tuterako proban eta Koldo anaia, beriz, lehenbizikoa.

DONEZTEBE

OIZ

GIZARTEA → UDALAK UTZI DIO MERKATARIEN KARRIKAKO LOKALA

Bertze hogei urterako egoitza izanen du Erreka elkarteak

Triatloi sekzioa ere izanen du elkarteak

TTIPI-TTAPA

1993an utzi zion lehen aldiz Udalak Errekari Merkatarien karrikako lokala, elkartearen egoitza izan zedin. Hogei urterako zesioa izan zen eta orduan, egoera kaxkarrean zegoen lokala txukundu eta urteetan beharrezko moldaketak egin dizkiote bazkideek, gaur egun duen itxura ederra lortu arte. Hogei urterako utzi zion Udalak lokala, eta erabilera baimena berritzea eskatu du orain elkarteak. Udalak ez du inolako eragozpenik jarri eta bertze 20 urterako utzi dio.

Bertze aldetik, Erreka elkartearen baitan triatloi atala sortzeko tramiak egiten ari dira. Berriki, Rotheiko Triatloi gogorrean parte hartu duen Gorka Bidegain izanen da atal berri horren arduraduna.

Mendi irteera ere an-



ARGAZKIA: JOSEBA ZABALZA/BOSTOK PHOTO

Abuztuaren 10ean jokatu du azken partida Iñaki Lizasok

Irudian ageri den bezala, San Fermin egunean Nafarroako zaleak agurtu zituen Iñaki Lizasok Huarteko Euskalen. Urrizarekin batera, Koteto Ezkurra eta Joxe Etxeberria herritarren kontrako partida irabaziz agurtu ere. Baina oraindik bertze partida bat gelditzen zaio eta betirako agurra Hernaniko Galarretan egingen du abuztuaren 10ean.

tolatu du Errekak uztailaren 27rako Aspe mendira. Hau idazterakoan, zehaztu gabe daude ordutegiak. Informazio gehiago nahi duenak Erreka elkartearen webgunea kontsultatu edo Sanba San Miguelekin egon behar du.

EGA Ikastaroa

Doneztebeko IKA euskaltegiak, urtero bezala, EGA ikastaroa antolatatu du heldu den abuzturako. Ikastaroa abuztuaren 6tik 30ra egingen da, hau da lau astez.

Ikastaro honen helbu-

ria EGA titulua prestatzeko klaseak eskaintzea da bai on-line nola ohiko eran (klase presentzialak). Interesatuak 948 45 15 55 telefonora deitzen ahal dute edo malerreka@ikanet.net helbidera idazten ahal dute.

EHIZA

Lau uso postu enkante publikoan jarri ditu Oizko Udalak

TTIPI-TTAPA

Oizko Udalak enkante publikoan jarri ditu lau uso postuen aprobexamenduak. Lehenengo postuaren hasierako prezioa 1.200 eurotan ezarri du Udalak, hiru eta lau postuenak 1.400 eurotan eta bortz postu zenbakiaren hasierako prezioa 1.000 eurotan finkatu du. Aprobexamenduak urte baterako izanen dira, hiru urteraino luzatzeko aukerarekin.

ABUZTUAREN 24AN

Enkantean parte hartzeko, lizitatzaileak hasierako prezioaren %5 utzi beharko du aitzinetik, behin behineko fidantza gisa. Goiti jartzeko postura 50 eurokoa izanen da eta lehenbiziko enkantea abuztuaren 24an egingen da Herriko Etxean, 12:00etan.

Esleipena arautzen duen baldintza agiria eskuratu nahi duenak udal idazkaritzan izanen du.

L@S Pek@S

HAURENTZAKO ARROPA 0-14 URTE

Jantzi 1	2 Jantzi	3 Jantzi	4 Jantzi
-%40	1.ºok -%40	1.ºok -%40	1.ºok -%40
	2.ºok -%50	2.ºok -%50	2.ºok -%50
		3.ºok -%60	3.ºok -%60
			4.ºok -%70

JANTZI GARESTIENAK DESKONTU HAUNDIENA DU

Elzorgbela, 4 behea DONEZTEBE T. 948 109 033 laspekas@hotmail.com

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILAJE Y MAQUILLAJE

5.ºok DESKONTUA kosmetikan
10.ºok DESKONTUA operietan 50€tik gorako gastuan. Promozioetan ez

ZUBIETA

GIZARTEA → MANKOMUNITATEAREKIN BATERA

Zaborra nola murriztu aztertzen ari da Herriko Etxea

Herriko konpostontzia kokatzeko hiru leku ikusi dira

Fermin ETXEKOLONEA

Malerekako Mankomunitatetik etorriak dira herrian jarri asmo duten konpostontziaren inguruko informazioa ematera. Udalordezkarrizarekin ibili ziren, eta herriko konpostontzia jartzeko hiru aukera aurkeztu zituzten: Hualdea

etxeko (sekretarioaren etxea) baratzean, depuradorako landa aldera (herritik urrutixeagoa) eta bestea elizaren inguruan. Teknikariak bere azterketak eginen ditu eta Mankomunitateak bere iritzia emanen du, baina azkenean Herriko Etxeak erabakiko du non jarri.

Zaborra gutxitzea eta zaborrontzi berdeak kentzen joatea da mankomunitatearen eta udalaren asmoa. Oraindik luze joanen da, bai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Udako beroa arintzeko erreka baino hoberik ez da

Uda garaia ailegatu da, berandu bada ere. Batzuk errekan freskatzen pasatzen dute denbora.

na herrian ere bada konpostagailua jartzeko asmoa. Denen laguntza beharko da herria ahalik eta txukunen mantentzeko.

Kinto-afaria

Uztailaren 27an, 1961 eta 1962an jai-

takoen kinto afaria antolatu dute Errandonea ostatuan. Ostatuan bertan eman behar dute izena.

Udaleku proposamena

Ainhoa Larrea eta Leire Bazterrikak pro-

posamena egin dute festen ondotik eta eskola hasi arte 3-12 urte arteko haurrak zaintzeko. Goizetan eskainiko lukete udaleku zerbitzua. Proposamen berria da eta interesa duenak beraiengana jo behar du lehenbailehen.

EZKURRA

GIZARTEA → MUNDU OSOKO TURISTAK DATOZ

Ezkurra, herri kosmo-polita

Bertako arbasoak dituzten argentinarrak ere agertu dira

Fernando ETXEBERRIA

Mundu osoko turistak hurbildu dira Ezkurra udan, zenbait egun eta gau emateko. Amerika, Danimarka, Taiwan, Ingalaterra, Gales, Alemania eta Frantziako bikoteak izan ditugu, baita arbasoak Ezkurrako-

ak zituzten Argentinako familiak ere. Mariezkurrena, Ezkurra eta gisako abizenak dituzten pertsonak dira. Estatutik, berriz, Katalunia, Valentzia, Madril eta Extremaduratik ere etorritako jendea izan dugu.

Bataioa

Uztailaren 13an bataiatu zuten Maia, Joseba eta Maria Jesusen alaba. Elizkizunaren ondotik, familia Barranka ostatuan bildu zen bazkaltzera.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ezkurrako Itzulia egin dute 19 mendizalek

Ezkurra eta Leitzako 19 mendizalek herriko mendi itzulia egin dute, aurreko urteetako ohiturari eutsiz. Perralekutik abiatuta, Ezkain eta Erakurrira igo ziren. Normalean Donostia ere ederki ikusten da gailur horretatik, baina egun horretako behelaino finak ikusmena oztopatu zuen. Olegi inguruan Iruñarriko mendhir famatuan gelditu ziren, Eratsungo lurretan. Handik herrira jeitsi ziren.

GIZARTEA → BESTAK PASATU BERRITAN

Uda garaiko ekintzetan murgildua dago herria

Ixiar Bazterrika eta Iزارo Ariztegiarekin udalekuetan gustora dabilta neska eta mutikoak

Arkaitz MINDEGIA

Iritsi da udako giroa eta uda garaia, dagoeneko gure herrian turistak ikusten ahal dira, batzuk euskal herritarrak eta besteak Madril eta Kataluniatik etorriak. Herriko xoko politak bisitatu eta bertan egun ahaztezinak pasatzera

etorri dira, landetxetan, Herriko Ostatuan edo Tresanean ostatu hartuz. Ea gustora pasa eta berriro ere bueltan etortzen diren.

Herriko besten kartela

Pasa berri diren herriko bestak ederki joan dira. Giro eta umore onean gisa guzietako ikuskizunetan herritarren parte hartze handiarekin. Orain hurrengo urteko bestetako gutxiago falta da. Aurtengo urteko udalak kartel lehiaketa egin zuen. Herriko Ostatuan egon ziren aurkeztutako lan



UTZITAKO ARGAZKIAK

Udalekuetako lanetan gustora dabilta herriko neska-mutikoak

guztiak ikusgai eta herritarren botoek erabakitzen zuten irabazlea. Enara eta Naroak egindako kartela izan zen bozkatuena eta beraien eskuratu zituzten jokoan zeuden 150 euro eta opari sorpresa.

Glana eta Leila herrian

Iritsi dira Iturenera Saharako bi neskato gazteak. Ekainaren 24an ailegatu ziren Glana eta Leila eta hemen egonen dira abuztuaren 21 bitarte. Mikel eta Marisaren etxean goxoki hartuko dituzte eta herriko gainerakoan mai-

tasuna ere jasoko dute. Urte berezia dute aurtengo. Saharaztanen bidez eta Nafarroa oso-ko Oporrak bakean egitasmoaren barrenean Euskal Herrira oporrak pasatzera etorriko diren azken urte dutelako. Ederki pasa eta aprobetxatu dezatela beraz!

Javier Sein garaile bi probatan

Dagoeneko oporrak hartu ditu mendiko bizikletan aritzen den Javier Sein iturendarrak. Bikain joan zaio sasoi hau eta azkeneko karretan aitzineko postuetan ibili da. Erraterako,

Zallan jokaturako Euskadiko Openeko lasterketan bigarren izan zen, Oiartzunen jokaturakoan lehenengoa eta Castañedan jokatu zen Open Astur proban ere irabazle suertatu zen.

Udalekuetan gustora

Ixiar Bazterrika eta Iزارo Ariztegik udalekuak antolatu dituzte. Ederki aski ari dira moldatzen beraiekin haurrak, astelehenetik ostiralera goizetan ekintza ezberdinak eginez. Argazkietan nabari da haurtxoak ederki ari direla pasatzen.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udako merkealdia

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → ABUZTUAREN 2TIK 5ERA

Herriko hiru bikoteren arteko aizkora apostua jokatuko dute bestetako igandean

Larunbatean idi proba jokatu da Beintzan eta harrijasotzaileak ariko dira

TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaiengo bestak abuztuaren 2tik 5era ospatuko dituzte.

OSTIRALA, ABUZTUAK 2 (LABAIEN)

- 20:00: altxaferoak bes-tei hasiera emateko. Ondoren karrikarronda herriko trikitalariek.
- 21:00: Zopak Iturrondo elkartearen eta Labaiengo ostatuan.
- Gaez dantzaldia AIERRIK taldearekin.

LARUNBATA, ABUZTUAK 3 (BEINTZA)

- Goizean: Karrikarronda herriko trikitalariek.
- 11:00: Plater-tiroa.
- 16:00-19:00: Puzgariak.
- 19:00: Idi proba Zubillagaren idiekin. Harrijasotzaileak: Urrutia eta Ostolaza.
- Arratsaldean eta gaez:

Dantzaldia TRAKETS taldearekin.

IGANDEA, ABUZTUAK 4 (LABAIEN)

- Goizean: Karrikarronda Iturengo txistulariek.
- 12:00: Meza Nagusia. Ondoren Luntxa Labaiengo Ostatuan. Gero, aizkora apostua: Xabier Mindegia eta Jazinto Etxekonanea; Pello Telletxea eta Miguel Angel Etxeberria eta Jose Luis Telletxea eta Jexux Etxeberria.
- 17:00: Mus txapelketak.
- 18:00: Gorriti eta bere animaliak. Puzgariak.
- 21:00: Tortilla eta postre lehiaketa.
- 22:30: Suak.
- Arratsaldean eta gaez dantzaldia JOXE ANJEL akordiolariarekin.

ASTELEHENA, ABUZTUAK 5 (BEINTZA)

- Goizean: Karrikarronda Iturengo txistulariek.
- Eguerdian: Herri kirolak gazteen artean.
- 14:00: Bertso bazkaria Anjel Mari Peñagarikano eta Xebastian Lizasorekin. Bazkal ondoren, karrikarronda Aurtizko txistulariek.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Txistulariak, aizkora apostua eta bertso bazkaria. Aurtengoan ere hutsik eginen ez duten bestetako hiru osagai.

rikano eta Xebastian Lizasorekin. Bazkal ondoren, karrikarronda Aurtizko txistulariek.

- Arratsaldean eta gaez dantzaldia JOXE ANJEL akordiolariarekin.
- 24:00: Gaixoa Ni, bes-tei bukaera emanez.

UDALA

Herriko Etxea kudeatuko duen batzordea izendatu du Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak apirilaren 24ko erabakiaren bidez Beintza-Labaiengo udalaren eratu beharreko Kudeaketa Batzordeko kideak izendatzeko deialdi publikoa onetsi zuen. Epea bukatuta, bost lagun aurkeztu dira: Jokin Arzallus Alberro, Martin Mindegia Labaien, Jon Telletxea Juanenea, Alejandro Saldias Otxandorena eta Juan Jesus Bertiz Goñi. Honenbertzez, Nafarroako Gobernuak, Landa Garapen, Ingarumen eta Toki Administrazio kontseilariaren proposamena onartu du eta bost lagun horiek izendatu dituzte batzordea osatzeko. Beraien artean solastu eta Jon Telletxea izendatu dute batzordeburu.

LABAIENgo Herriko Ostataua
Ongi pasa bestak!
T. 948 450 811

ORBELA
SANTO DOMINGO
Ongi pasa bestak!
Idola - Mikel | T. 948 450 014 | BEINTZA-LABAIEN
orbela@altergaureriventa.com | www.altergaureriventa.com

BALEZTENA
jameridenda
ongi pasa bestak!
T. 948 450 044
Antsolantzena
BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → ABUZTUAREN 2TIK 5ERA

Partxis txapelketa eta aizkora apostua Santo Domingo bestetako egun handian

Astlehenean herri bazkaria egingen da eta afariaren ondotik, Gaixoa Ni kantatuko dute

TTIPI-TTAPA

Gazteluko Santo Domingo bestak abuztuaren 2tik 5era ospatuko dituzte.

OSTIRALA, ABUZTUAK 2

- 20:00: suziari eta ondoren txistulariak herria alaitzen ibiliko dira.
- 22:00: Zopak Herriko Ostatuan.

LARUNBATA, ABUZTUAK 3 HAURREN EGUNA

- 10:00: Kalejira. Goizez eta arratsaldean, jokuak eta puzgarriak.

- 17:00: Mus txapelketa.
- 19:00: Txokolatada.
- Arratsaldean eta gauetan, dantzaldia AGERRALDERekin.
- 21:30: Gazte afaria.

IGANDEA, ABUZTUAK 4 SANTO DOMINGO EGUNA

- 10:00: kalejira.
- 10:30: Meza Nagusia. Ondoren salda ostatuan.
- 17:00: Partxis txapelketa.
- 18:00: Aizkora apostua.
- 19:00-22:00: dantzaldia AGERRALDERekin.

ASTELEHENA, ABUZTUAK 5

- 09:00: gosaria plazan.
- 10:00: Kalejira.
- 14:00: herri bazkaria.
- Arratsaldean eta gauetan dantzaldia AGERRALDERekin.
- 22:00: Afaria eta ondoren, Gaixoa Ni.



ARGAZKIAK: MAITANE OTEIZA

Mahai inguruan egingen da Gazteluko Santo Domingo bestetako zati handia. Hondar egunean, erraterako, gosaria, herri bazkaria eta bestak akitzeko afaria izanen dute. Baina gorputza mugitzeko aukera ere izanen da. Abuztuaren 3ko Haurren Egunean jokuak eta puzgarriak izanen dituzte ttikienean, saltoka eta lasterka ibiltzeko.

TXARUTA, S.L.
Iturgintza · Berokuntza · Gasa
ongi pasa bestaki!
948 45 17 28 · 659 77 00 15
GAZTELU

CASA OSTIZ
ttipi txartela
%10eko DESKONTUA oinetakoetan

ARESO

KIROLAK → BAZTAN-BIDASOA TALDEAN ARI DIRA

Itxaso Onsalok Nafarroako Herri kirol txapelketan parte hartu du lehenengoz

Bigarren postua lortu du arpana lehiaketan eta txingekin ere aritu da

TTIPI-TTAPA

Itxaso Onsaloko herri-tarrak Leire Astiazaran zizurkildarrarekin batera osatu zuen bikotea Nafarroako arpana txapelketan eta bigarren postua eskuratu zuten. Probaren hasieran au-

rretik joan ziren, baina amaieran beteranoek aurre hartu eta Nerea Sorondo eta Amaia Gartziak irabazi zuten. Hala ere, ez ziren urrutiti ibili gure neskak, 25 segundo gehiago behar izan baitzituzten lanak



ARGAZKIA: ENERITZ IRAOLA

Itxaso Onsaloko eta Leire Astiazaran, sariekina.

amaitzeko. Erakustaldi bikaina eman zuten, kontuan izanda duela gutxi hasi direla Patxi Larretxearekin Baztan-Bidasoa taldean entrenatzen. Orain arteko bi-

detik segitzen badute, ziur garaikur bat baino gehiago ekarriko dituztela herrira. Arpana lehiaketaz gain, txinga txapelketan ere parte hartu zuten biek.

Festak prestatzen gogoz ari dira herritarrak

Juana Mari SAIZAR

Festetarako prestatzen hasia da herria. Dantza talde txikian, 20 ume biltzen dira arratsaldetan, astean bitan trinketeetan, Ingurutxoa ikasteko eta festetan emanaldia eskaintzeko. Haundien dantza taldea ere lanean gogor ari da prestatzen. Ekintza hauek ez dute gasturik izango, festetan hainbat herritar lanean ariko da eta parte hartuko du egitarauan, gastuak murriztu nahian. Borondatea izango da aur-



ARGAZKIA: JM SAIZAR
Neska-mutikoak Ingurutxoa prestatzen.

tengo ezaugarri nagusia. Beste ekintza bat antzerkia da. Hauek ere astean bitan biltzen dira. Nahiko presaka omen da biltza, baino espero dugu iaz bezalaxe, dena on-

gi atera eta gozatu ederra eskaintzea ikusleei.

Herria txukuntzen ere ari dira bi peoiak, udarako Pello Belaunzarane lanaldi honetarako frogak irabazi baitzituen.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

21 ume biltzen dira udako ekintzetan

Uda bete betean sartu gara eta opor giroa nabari da herriko txoko guztietan. Eguraldi eguzkitsuak lagunduta, herriko plazan hainbat ekintza ari dira egiten herriko ttikienak. Uztailaren 15etik abuztuaren 9ra, udalekuak egiten ari dira eta egunero 2 orduz 21 ume biltzen dira, bi monitoreren gidaritzapean jolasean aritzeko. Kirol mankomunitateak eta guraso elkarteak antolatutako programa da.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

SEAT

DATUCELAY




% 10eko
DESKONTUA
bateria eta
amortiguadoretan



GIZARTEA → UZTAILAREN 30EAN

Bazkari dotore batekin bukatuko dituzte udalekuak

Iskibi kanpinean dute hitzordua haur eta gurasoek

TTIPI-TTAPA

Aurreko alean aipatu genuen bezala, Guraso Elkarreak antolatuko udalekuetan 48 neska-mutiko ari dira uztailean ekintza ezberdinak eginez. Udaleku horiek behar bezala bukatzeko, bazkari batean bilduko dira neska-mutikoak eta gurasoak. Uztailaren 30ean eginen dute bazkaria Iskibi kanpinean. Hernaniko igarilekura doazen neska-mutikoen autobusa 13:15 aldera ailegatzan da eta horiek biltzean emanen zaie tikienei bazkaria eta gero nagusiek bazkalduko dute. Bazkalondan, haur nahiz helduek izanen dute errekan bustitzeko aukera. Bien bitartean, gustora segitzen dute neska-mutikoek ekintza ezberdinetan parte hartzen. Joan den astean, Erefotzu inguruan piraguarekin arraunean ikasten ibili ziren.

Goizuetatik Aranora mendi ibilaldia

Uztailaren 25ean Umore Ona elkarteak Santio egunean Aranora mendiz joateko ohi-turari jarraituz elkarrekin joateko plana prestatu du.

Goizeko 9etan aterako dira herriko plazatik. Aranora iristean kontsejupean hamaiketako izango da mendiz joan direnentzat. Hamaiketako nahi duenak 2 euro ordaindu beharko ditu.

Eguna giro ederrean pasa ondoren, buelta bakoitzak bere kontura egin beharko du.

Zintronikora Aurorak kantatzera

Ez daude gelditekoak Umore Ona Abesbatzakoak. Aurrekoan, Donostialdean emandako kontzertuen eta Hernanin abestutako auroren berri eman genuen. Igandean Zintronikora joatekoak ziren 27 lagun Auroren Egunean parte hartze- ra, lehen aldiz. Goizeko 04:45ean ateratzekoak ziren autobusean.



ARGAZKIAK: IGOR ELIZEGI
Joan den astean piraguan ibili ziren udalekuetako neska-mutikoak Erefotzu aldean.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Karmen bezperako afari arrakastatsua

Karmen bezpera ospatu da aurten ere, duela hiru urte berreskuratutako ohitura zaharrari eutsiz. 90 heldu eta 30 bat ume bildu ziren herriko plazan eta gau giro ezin hobearrekin etxetik eramandakoak afaldu, kupeletik sagardoa edan (hori bukatu zenean, botilatik ere bai) eta ondoren sua piztu zuten, nahi zuten guztieri salto batzuk egiteko aukera eskainiz. Udalaren, Umore Ona elkartearen eta antolaketan laguntzen duten herritarren helburua betez, urtetik urtera festa sendotzen eta parte hartzea bultzatzen ari dira.

 ttipi-ttapa

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

inprimitzen ditugu

LEITZA

GIZARTEA → UZTAILAREN 20A IZAN ZEN EGUN HANDIA

Zortzigarren urteurrena ospatzen ari da Gaztetxea

Uztailaren 26an labormetrai lehiaketako lanak proiektatuko dituzte

JM BARRIOLA

Atekabeltz gaztetxe-koak 8. urteurrena ospatzen ari dira. Egun handia uztailaren 20a izan zuten. Txupinazioa eta gero, erremontesuabizante txapelketa azkarra jokatu zuten plazan. Gaztetxean egin dako bazkariaren ondotik, karrito-joku-poteoa egin zuten herritik barrera. Arratsaldean rap kontzertua eskaini zuten La Chula Potra kantariak. Ondoren luntx bikaina izan zuten eta gero kontzertua Gose tal-

dearekin. Baina larunbateko egun handiaren ondotik ere segituko dute ekitaldiekin. Uztailaren 25ean, ostegun arratsaldeko 7:30ean masaje tailerra izanen da eta uztailaren 26an, ostirarekin, labormetrai lehiaketa. 22:30ean hasiko dira proiektzioak eta ondotik sari banaketa egingen da.

Sahararen aldeko ziklo indoor saioa bertan behera

Joan den urtean bezala, Saharar herriaren aldeko ziklo indoor topaketa egitekoa zen uztailaren 20an, baina behar adina jende apuntatu ez delako bertan behera utzi behar izan dute. Udazken aldera berriz ere saiaturko omen dira antolatzen.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Hornidura lanen ondotik, zoladura berri dute Amazabalen.

ETAP jartzeko lanak hasiak dira

Aurten, Udalak bi herri-lan haundi zituen egiteko aurreikusiak, alde batetik Amazabal auzoko hornidura berri eta zoladura txukundu, eta ondoren ETAP, urak depuratzeko plantaren ezarketa. Amazabaleko lanak burutu dira jadanik. Otsailean hasi eta ekainaren erdialdera bukatu ziren. Orain, herriko urtegiaren ondoan, ETAPa ezarriko da. 2020. urterako urtegi-tan sartzeko den ura, aurretik filtratu eta garbitzea behartzen duen le-



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Otsailean hasi eta ekainaren erdialdean bukatu dira obrak.

ge europarra baitago, horregatik Nafarroko Gobernuak plan zuzentzailean jarri zuen proiektua. Lanak lau hi-

labetetan bukatu behar dira. Lan hauen kostua 722.412,35 eurokoa da eta %90ko laguntza izanen du.

GIZARTEA

60 neska-mutiko gustora dabilta haur txokoan eta tallerretan

TTIPI-TTAPA

Uda partean, Udalak, Euskara Zerbitzuak eta Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak 3-11 urte arteko haurrentzat jolastailerrak antolatzen dituzte hila batez, aisialdi osasuntsua eta hezitzailea eman eta euskararen erabilpena bultzatzeko helburuarekin. Dindaia Fundazioaren eskutik bost begirale eta garbitzaile bat daude lanean. Aurten 60 neska-mutikok izena eman dute. Joan den astean 14 ume zeuden haur txokoan (3-6 urtekoak) eta 33 tallerretan (6-11 urtekoak). Errekara eta piznara joan, talde jolasak, herri kirolak, sukaldaritza, ginkanak, esku lanak eta esperimenduak, labormetrai bat grabatu... Denetik egiten dute.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Haur Txokoan gustora dabilta 3 eta 6 urte arteko neska-mutiko hauek.

HEDABIDEAK → UZTAILAREN 5EAN JAKINARAZI ZUTEN

Nafarroa osoan emititzeko lizentzia eskuratu du Xaloa Telebistak

Gobernuaren proposamena onartzen duen ala ez uztailaren 23rako erantzun behar zuten

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak joan den abuztuaren deitu zuen Lurreko Telebista Digitalean (TDT) Nafarroa osoan emititzeko lizentzia jasotzeko lehiaketa, bai-

ta tokiko lau lizentzia jasotzeko lehiaketa ere, hiru Iruñean eta bat Tafallan. Uztailaren 5ean jakinarazi zuen lehiaketetara aurkeztutako proiektuen artean zein aukeratu dituen: zazpi telebista-proiektuetatik sei proposatu ditu eta tartean daude Xaloa Kultur Elkarteak aurkeztutakoak.

Nafarroa osoan emititzeko bi kanalen lizentzia zegoen jokoan eta horiek Xaloa Kultur Elkarteari eta Abian Komunikazioa SL taldeari esleitu dizkio Gobernu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Xaloa Telebistako lan taldea.

ak. 2012ko martxoan, Canal 4 Navarra Digital SAK ikus-entzunezko zerbitzuen kudeaketarako zuten lizentziari uko egin zion eta horren ondotik egin zuen Nafarroako Gobernuak deialdi hau.

Iruña aldean emititzeko, hiru kanal zeuden jokoan eta horiek Xaloa Kultur Elkarteari, Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeari eta Abian Komunikazioari esleitu dizkio. Tafalla mu-

gapeko tokiko kanala, berriz, Zona Media Televisionentzat izan da.

Behin lizentziak esleitura, onartutako taldeek uztailaren 23rako eman behar zuten erantzuna, Gobernuaren proposamena onartzen duten ala ez adieraziz. Onartuz gero, urte bat edukiko dute proiektuaren martxan paratzeko. Nafarroa mailako seinalea zabaltzeagatik urtean 100.000 euro baino gehiago ordaindu be-

har zaizkio Nasertic enpresari eta Iruñean seinalea zabaltzeagatik 20.000 euro baino gehiago Abertis enpresari. Aipatu, bertalde, bi urteren buruan lizentzia saldu dezaketeela.

Joseba Igarabide Xaloa Telebistako ardura-dunak TTIPI-TTAPARI jakinarazi dionez, Nafarroako Gobernuarekin bilera eskatzekoa zuten lizentzia batek zein berzteak zein aukera dituen ikusteko (*ikus 3. orr*).

ERREPIDEAK → MARIEZKURRENA ARI DA

Abuztu hondarrean irekiko dute Belateko tunela

Ezponda egonkortzeko lanak akituta

TTIPI-TTAPA

Belateko tuneleko hegoaldeko euste-lanak abuztu hondarrerako akituko direla aurrikusidu Nafarroako Gobernuak. Sustapen kontseilariak obrak bisitatu zituen uztailaren 18an. Gaur egun, ezponda

egonkortzeko lanak egiten ari dira, apirilaren 14 eta 15ean tunelaren hegoaldeko ahoan zenbait luizi izan baitziren. Une hartan, ezpondari eusten zion harri-lubetako azal baten harri batzuk erori egin ziren. Langileak eroritako materiala kentzeko nahiz mugitutako harri-lubetan aritu ziren lanean, nahiz eta euriteek egoera areagotu zuten apirila-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Ezponda egonkortzeko lanetan ari dira Mariezkurrena eraikuntza enpresako langileak.

ren 29an, maiatzaren 18an eta ekainaren 9an.

Construcciones Mariezkurrena SA egonkortzeko lanak egiten ari da, funtsean, 60 me-

tro luzeko 120 mikropilotek ainguratutako pantaila bat eraikitzeko, izandako luiziarekin zeharka jarrita eta malkaretik 13 bat metrora,

hark hegalaren goialde-rra jarrai ez dezan eta NA-1210 errepidera ailegatu ez dadin, Belateko lehengo mendate-rra, hain zuzen.

BAZTAN

UDALA → EKIMEN BERRIA ABIAN

Baldintza sozialak dituzten etxebizitzaren beharra jakiteko diagnosia egingen da

Interesatuak irailaren 2a baino lehen eman behar dute izena

TTIPI-TTAPA

Krisi ekonomikoaren ondorioz, familiek, bertzelako zailtasunen artean, etxebizitzaren alokairua edo hipoteka ordaintzeko zailtasunak dituztela ikusita, ekimen berria paratu du martxan Baztango Udalak. «Alokairuak altuak dira eta soldatak, berriz, gero eta apalagoak, eta bitartean, administrazio publikoaren jabetza duten pisuak hutsik daude», adierazi dute Baztango Udaletik. Hala, alokairu publiko sozialaren aukerarekin lanean hasi da.

Baztanen etxebizitzarako eskubidea lortzeko edo mantentzeko zailtasunak zenbat familiek dituzten jakin nahi du Udalak, hau da, baldintza sozialak dituzten etxebizitzaren beharra zenbatekoa den. Eta horretarako egotzaren diagnosi bat eginge erabaki du.

Gizarte Zerbitzueta-ko teknikariek interesatuen beharrak bilduko dituzte, eta horrela, «datu objektibo horietan oinarriturik, etorkizunari begira aurrerapausoak emanen dira», azaldu

dute Udaletik. Gaineratu dutenez, «norbanako edota familiek onuradun izan nahi badute, Baztango Udaletxeko beheko solairuan dagoen Gizarte Zerbitzuetara hurbil daiteke». Azpimarratu dute balorazio edo diagnostiko fase batean daudela, benetako beharra zein den jakiteko.

Aurkezteko epea zabalik dago eta irailaren 2ra bitartekoa izanen da.

Arizkongo herri eskolako teilatua berrituko da

Baztango Udalak 21.653,64 euro bideratuko ditu Arizkongo herri eskolako teilatua moldatzeko. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari dirulaguntza eskatu zitzaion eta honek baiezkotzea eman ondoren hartu du erabakia Udalak.

Udako Zinea

Herriz herri zinema hurbiltzeko Baztango Kultura Batzordeak antolatutako Udako Zinea zikloaren barnean uztailearen 29an, 22:00etan *Barriola San Adriango azeria* emanen dute Gartzaingo pilotalekuan 22:00etan eta abuztuaren 5ean, *Ice Age 3-Izotz Aroa 3 Dinosauroen egunsentia* 21:30ean Zigan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Saharako neska-mutikoei harrera egin die Balleko Udalak

Saharaztan elkartearen bidez, ekainaren 24tik abuztuaren 21era bitarte gurean dauden Saharako 20 neska-mutikoei harrera egin zien Baztan Balleko Udalak uztailearen 13an, Balleko Etxeko balkoian Sarahako ikurra zintzilikatua zegoen bitartean. Garbiñe Elizegi alkateak eta Maite Oteiza zinegotziak egin zieten harrera ofiziala Saharaztan taldeko kideei, Saharako ordezkari bati eta uda Lesaka, Bera, Ituren, Sunbilla, Erratzu, Arizkun, Azpilkueta, Elizondo, Elbete, Oronoz, eta Mugairin pasatzen ari diren Saharako neska-mutikoei eta harrera-familiei. Oparitxo bana ere jaso zuten neska-mutikoei eta bazkaria ere izan zuten.



ARGAZKIA: IRUNE JAEN

77 neska-mutiko ari dira Udako Jostaldian

Hilabete terdiz Udako Jostaldietan ari dira Baztango neska-mutikoak. Lehenbiziko bi asteetan Iruritan aritu ziren 9 haur Irune Jaen eta Amaia Zinkunegi monitoreekin (lehenbiziko urtea da herri honetan eskaintzen dela), bi asteotan Erratzun ari dira 36 haur, lehengo biez gainera Estebe Apezetxe eta Leonor Laborra erakusle dituztela eta azken bi asteak Elizondon egingen dituzte 22 haurrekin Leonor Laborra, Amaia Zinkunegi eta Josu Agerrerekin.

OSPAKIZUNAK → ABUZTUAREN 9TIK 13RA

Joaldunak eta txalaparta emanaldia izanen dituzte Zigako San Lorentzo egunean

Igandean hainbat txapelketa egingen dira eta kantaldia eskainiko du Erramun Martikorenak

TTIPI-TTAPA

Zigako San Lorentzo bestak ekitaldiz gainezka datoz.

ORTZILERIA, ABUZTUAK 9 BEZPERA

- 20:00: suziria beste hasiera emateko eta ezkil jotzea.
- 20:30: herriko trikitilarien saioa herrian barrena.
- 21:30: Baztan zopak (txartelak erosteko azken eguna abuztuaren 5a).
- 00:00: dantzaldia

EZTENGIRO taldearekin.

- 06:00: Gosaria egun haundia ongi hasteko.

LARUNBATA, ABUZTUAK 10 SAN LORENTZO EGUNA

- 10:00: herriko trikitilarien saioa herrian barrena.
- 11:00: Meza Nagusia.
- 20:00: dantzaldia GABENARA taldearekin.
- 21:00: joaldunak eta txalaparta emanaldia.
- 21:30: afaria frontoninan (txartelak hartzeko azken eguna abuztuaren 5a).
- 00:30: dantzaldia GABENARA taldearekin.
- 06:00: gosaria. (Gan torri autobus zerbitzua izanen da)

IGANDEA, ABUZTUAK 11

- 11:00: herriko trikitilarien saioa herrian barrena.
- 11:00: haurren 1. frontenis txapelketa.



ARGAZKIAK: ARANTXA GAMIOK UTZIAK

Giro ederra izanen dute aurten ere Zigako San Lorentzo bestetan.

- 11:30: mus txapelketa.
- 16:30: pala txapelketa.
- 17:00: Baztandarren Biltzarraren 50 urteurrena ospatzeko argazki erakusketa.
- 18:00: Tortilla txapelketa eta ondotik tortilla dastaketa.
- 20:00: Erramun Martikorenaren kantaldia Joxe Angelen laguntzarekin.
- 14:00: haurren bazkaria.
- 16:30: Haurrendako puzgarriak, giza futbolina...
- 18:30: Txokolatada.
- 20:00: dantzaldia AGERRALDEekin.
- 21:30: afaria.
- 00:00: dantzaldia AGERRALDEekin.

ASTEARTEA, ABUZTUAK 13 ZIKIRO EGUNA

ASTELEHENA, ABUZTUAK 12 HAUR ETA GAZTE EGUNA

- 11:00: herriko trikitilarien saioa herrian barrena.
- 13:00: ezkil jotzea.
- 14:00: Zikiro bazkaria (txartelak erosteko azken eguna abuztuaren 5a).
- 19:00: Maiordomo berrien aukeraketa.
- 20:00: dantzaldia AGERRALDEekin.
- 00:00 Gaixoa Ni beste amaiera emateko.
- 10:30: herriko trikitilarien saioa herrian barrena.
- 11:00: Gazteen gosaria ostatu zaharrean.
- 11:30: haurren jokoak.
- 12:00: gazteak etxetz trikitilariak alaitua (aurten Zigaurre eta baserrietan barna).

UDALA

Hiru irakasle behar dituzte Musika Eskolan

TTIPI-TTAPA

Udal Musika eskolarako gitarra, zeharkako txirula eta klarineteko irakasleak behar dira heldu den ikasurtean eta horiek betetzeko deialdia egin du Udalak. Izena emateko azken eguna uztailaren 30a izanen da. Interesa duenak Baztango Udaletxeko web gunean izanen du deialdiaren oinarrien berri. Euskaraz jakin behar dute musika irakasleak. Gitarra irakasleak asteen 13 ordu eta erdiko lanaldia izanen du (astearte eta asteazkenetan, 15:00etatik 20:00etara eta ortzegunetan 15:00etatik 18:30era). Zeharkako txirula irakaslea asteen 12 orduz ariko da (asteartean 15:00etatik 20:30era eta asteazkenetan 14:30etik 21:00etara) eta klarinetekoa 7 ordu eta erdiz (asteartean 15:00etatik 19:00etara eta asteazkenetan 15:00etatik 18:30era).

jaione tindategia

ttipi txartela

%10eko
DESKONTUA
12etik gorako gastuan

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 560 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 - AMAIUR
www.mendialdea.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C - ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

GIZARTEA

ARKUPEAK → ARALARREN MEZA ADITUKO DUTE

Aiton-amonen Eguna ospatuko dute erretiratuek uztailaren 26an

Mendi taldeko 17 lagun Pirinioetan ibili ziren uztailaren 1etik 5era

Fernando ETXEBERRIA

Ostiral honetan, uztailaren 26an ospatuko dute Arkupeak elkarteko bazkideek Aiton-Amonen Eguna. 236 bazkide espero dituzte Aralarren, han eguerdiko meza aditu eta gero Gorraizeko gaztelura joanen dira bazkaltzera. Bazkalondoan, dantza egiteko aukera izanen dute 19:00 arte.

Baina erretiratuak ez daude bakarrik ospakizunetarako. Uztailaren 1etik 5erako astean Pirinioetan ibili dira mendi-taldeko 17 mendiza-

le, Isaba inguruan. Lehen egunean Otxagin bildu eta Orhi igo zuten. Begiratokian bazkaldu eta Isabara jeitsi ziren eta handik Idoiako baselizara beste itzulitxo bat egin zuten.

Uztailaren 2an, Linzako aterpetxetik Hiru Erregeen Mahaira igo ziren. Linzolako lepotik gora lehenbiziko zailtasunak izan zituzten, oraindik ere elurra baitzegoen, baina azkenean lortu zuten kaxkora ailegatzea eta bista ederretaz gozatzea.

Uztailaren 3an Lakorara igo zuten, baina behelainoaren ondorioz Kartxelako bide inguruan ibili ziren. Arratsaldean, Isabatik 3 kilometro daigoen aire libreko muni-seora joan ziren.

Uztailaren 4an Auña-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Pirinioan barna, uztailaren ere elurretan ibili dira Arkupeak elkarteko mendizaleak.

mendira igo ziren, eguraldi bikaina lagun zutela. Kaxkotik ehun bat metrora arriskutsu zegoen bidea, hormatutako elurrarekin, baina halere, esperientzia gehien zuten mendizaleek aurrera egin zuten gailurreraino.

Uztailaren 5ean, azkenik, Txamantxoia-ra igo ziren Isabako kampingetik abiatuta.

Beraz, bost egun lagunarteko giro ederrean eman zituzten, eta ez zuten inolako ezbeharririk izan.

Bien bitartean, beste

14 bazkideko taldea Puente Viesgoko bainuetxean ere izan da. Gauri batean gehiago ere joaten ziren, baina Elgorriagan urte osoan bainuetxea prezio eskuragarriagoan izanik, asko murriztu da bidaiari kopurua.

GIZARTEA → ELKOKO EUSKAL BESTAN

Beintza-Labaiengo aizkolariak Ameriketara ibili dira

Telletxea anaiek erakustaldiak eskaini dituzte

Arantxa ITURRALDE

Uztailaren lehenengo asteburuan ospatzen da urtero euskal festa Nevada Elkon. Garai ba-

tean, artzai joandako hainbat euskaldun biltzen da jaialdi honetan. Aukera paregabea izaten dute elkar ikusteko, festa giroan solasteko eta ohiturak, kirola eta folkloreak gozatzeko.

Dantza taldeak, euskalherriko zazpi probintzietako emanaldi desberdinak eskeintzeaz

gain, aizkolarien lehia ere izaten da. Bertan izaten da ia urtero Californian bizi den Labaindarrak, Jose Telletxea. Aurtengo Pello Telletxea anaia izan du aurkari. Hirugarren aizkolaria San Francisco bizi den Cristophe Irigoyen izan da.

Ostiralean, erakustaldi txiki bat izan zu-



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Telletxeatarrak Elkoko Euskal Bestan.

ten, bakoitzak egur baina moztuaz. Larunbatean izaten zen egun haundiena eta bertan bosna enbor moztu zituzten. Pello Telletxea suertatu zentxapeldun,

Jose anaia hurbilean zuelarik. Ane Telletxea, Pello Telletxearen alaba ere, bertan izan zen txistulari bezala, aizkolarietara lagunduz eta girotuz.

ADI! 2013ko EKAINAREN 1etik AURRERA DERRIGORREZKOA DA ETXEBIZITZAREN ETIKETA ENERGETIKOA ESKURATZEA



➤ Zer da etiketa energetikoa?

Etiketa honen bitartez bultzatu nahi dira energetikoki efizienteak diren eraikuntzak eta energiaren aurrezpenean egiten diren inbertsioak. Izan ere, 2013ko ekainaren 1etik aurrera edozein etxebizitza edo lokal **saldu** edo **errentan** emateko, beharrezkoa izanen da Etiketa Energetikoa izatea.

➤ Zer adierazten du etiketa energetikoa?

Eraikuntzaren kontsumo energetikoa

- A Kalifikazioa – Kontsumo txikiagoa (Isolamendu bikaina)
- G Kalifikazioa – Kontsumo handiagoa (Isolamendu ezin txarragoa)



➤ Zer gertatzen da ez baldin badut etiketa energetikoa edo daukadan etiketa ez datorrenean bat isolamenduarekin?

- Etiketa eta isolamendua ez datozenean bat **601€** eta **1.000€** arteko isuna.
- Etiketarik ez izanez gero **1.001€** eta **6.000€** arteko isuna.

➤ Nola kontrolatzen da etiketa energetikoa?

Nafarroako Gobernuaren obligazioa da ziurtagiriak kontrolatzea.



Betiko aurreratu egin da eta lortu du bere leihoguztiek **A mailako** Efizientzia Energetikoaren Etiketa (efizientziarik handiena) izatea .

Eta nobedadeekin segituz,

Betikok dagoeneko baditu **A+++** etiketa duten leihoak, Europan 2020rako eskatuko duten gutxieneko maila soberan gainditzen duten leihoak.

Noizbait galdetu diozu zeure buruari nolako efizientzia energetikoa duten zure leihoek, A-B-C-D-E-F-G?

Badakizu zenbat aurreztuko zenuen urtean **A** eta **A+++** mailako efizientzia energetikoa duten leihoak izanez gero?



Etorri gure instalazioak bisitatzera eta **erakutsiko** dizkizugu **A** eta **A+++** mailako leihoak eta, bidenabar, etxean aurrezpenik handiena lortzeko azterketa energetikoa eginen dizugu.



**Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak
Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak**

Ordoki ind. • ARIZKUN | T. 948 453 259 | F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com | www.betikopvc.com

URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → SEIGARREN EDIZIOA

Agorrilaren 10ean ospatuko da Burdinaren Eguna

Pilotaren Unibertsoko ekitaldiak ere egingen dira abuztuan

TTIPI-TTAPA

Burdinaren Eguna seigarren edizioa egingen da agorrilaren 10ean.

Burdinaren Eguneke egitaraua goizeko 10:00etan hasiko da, artisautza azoka irekiko baita. Brun anaien eskutik, burdin langileen erakustaldia egingen da eta haurrentako puzgarriak eta ureko jokak ere paratuko dituzte. 12:00etan burdin mine-ralez zamatuta datozen idiak helduko dira monastegi ingurura. 12:15ean burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia egingen da. Ondotik Iruñeko Orfeoiko ahots lodien abesbatzak kantatuko du plazan. 13:00etan, berriz, "Premostraten-

seak euskal lurraldean" ikusentzunekoa eta so-lasaldia eskainiko du Michel Duvert-ek elizan. 14:30ean zikiro jatea izanen da, Iruñeko Orfeoiko ahots lodien abesbatzak alaitua. Bazkal ondoan DJ batek musika paratuko du.

PILOTAREN UNIBERTSOA

Burdinaren Egunaz gain, Pilotaren Unibertsoko jaialdiak egingen dira aurten ere, bi egunez, pilota modalitate ezberdinak ezagutzera emateko helburuarekin.

Abuztuaren 3an, larunbatarekin, 19:00etan pilota erakustaldia egingen da eta partiden ondotik, patata tortilla lehiaketa. Lehiaketan parte hartu duten tortillak dastatzeko aukera izanen da gero, baita txistorra eta hirugiharra, sargardoaz lagundua.

Abuztuaren 24an, oraindik egitarau zabalagoa prestatua dute. 17:00etan euskal dantzaz saioa eskainiko du-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Garai batean, Urdazubiko monjeek burdin materiala nola erosten eta lantzen zuten erakutsiko da Burdinaren Egunean. Pilotaren Unibertsokoaren bidez, berriz, pilota modalitate ezberdinak ezagutzeko aukera izanen da. Irudian, zesta-punta.

te Xaretako neska-mutikoek. 17:30ean herri kirol erakustaldia izanen da Larretxea anaien es-

kutik. 19:00etan izanen da pilota erakustaldia eta ondotik, 20:30etik aitzinera xardina-jatea,

txorizo pintxo eta sargardoa txotxetik dastatzeko aukera izanen da.



JATETXEA-ERBETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarineatik
 2 km.tara

PLATER KOMBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

ARMUA JATETXEA



T. 948 599 131
 Zugamendi 5. 01000
 URDAZUBI

Mármoles SOULE
 HILETA ARTEA

T. 948 453 444
 M. 629 659 583
 ARIZKUN

ttipi txartela

ttipi-ttapa

PUS IRIARTEA IGARTZA
72675333-O
04/2014
123456

**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58
telefonoan

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA

Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457

info@ttipi.net | www.ttipi.net

deSKONTUAK

DATUCELAY



ELIZONDO SERT
%10 bateria eta amortiguadoretan

Mary Cruz
LENTZERIA

DONEZTEBE | ELIZONDO
%10, 30€tik gorako gastuan

kukuka
KUKUKA

DONEZTEBE
%10 pijama eta baruko arropetan

EZ Zaldia
KALORIOA GASTATZEN DUTENAK

DONEZTEBE | ELIZONDO
%10 produktuetan



**POSADA
OITZ**

OITZ
%10eko deskontua



**intzuri
OPTIKA**

LESAKA
%10 produktu guztietan

zozketak

594 ALEKO IRABAZLEAK

1- KAMISETA BAT | Onddo ta punto
Iraxio Sansiñena Maia | **ETXALAR**

2- CD 1 | Gor disketxea
Marisol Taberna Irazoki | **BERA**

3- MAHAI-JOKOA | Urbinba eskola
Koro Irazoki Arburua | **BERA**

4- 2 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea
Mara eta izar-saltzailea | Milagros Lopez Peraila | **ELIZONDO**
Izek Eli eta blok | Mila Indart Sarratea | **DONEZTEBE**

5- 2 SARRERA | Berako igerilekua
M^a Sol Otxoteko Portu | **LESAKA**

6- 2 SARRERA | Aquarium
Kontxi Saldias Gragirena | **BEINTZA-LABAIEN**

**KAMISETA BAT
Oninart denda**

www.oninart.com

1



MARTIKO LOTEA

www.martiko.com

2



2 SARRERA

Zugarramurdiko sorginen lezeak
www.turismozugarramurdi.com

3



**2 LIBURU
Alberdania+Erein+Igela**

www.alberdania.net
www.erein.com
www.igela.com

4



**2 SARRERA
Berako igerilekua**

www.urdisl.com

5



**2 SARRERA
Aquarium**

www.aquariumss.com

6



SARA

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 27AN

Urtxintxak eskubaloi taldeak 20. urteurrena ospatuko du

Larunbat arratsean paella erraldoia zerbitzatuko da

ella erraldoia zerbitzatu izanen da (15 euro pertsona bakoitzeko), haurtzat menu berezi bat 5 eurotan. Gaudia animatua izanen da ondotik!

Joana GUERENDIAIN

Sarako Urtxintxak esku baloi elkarteak bere 20 urteak ospatuko ditu aurten. Horren kariatara egun berezi bat antolatzen dute uztailaren 27 an larunbatarekin. Arratsaldeko 2 etatik goiti esku baloi txapelketa bat izanen da haur eta jokalaririk ohien artean. Gauean 8etatik goiti denak elkartzeko gisan apertifa bat izanen da eta ondotik pa-

Saguzarraren gaua ortziraletan

Urtero bezala Sarako lezeetan saguzarraren gaua antolatua da, aurten uztailaren 26ean eginen da. Arratseko 8etatik goiti hasiko da animale honen biziari buruzko mintzaldi batekin eta ondotik saguzarrak behatzen ahalko dira lezearen atarian. Ekitaldi hori denari idekia eta urririk da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hogei urte daramazki lanean Sarako Urtxintxak eskubaloi taldeak.

Kantaldia

Goraki abesbatzak kantaldi bat emanen du elizan abuztuaren 1 ean gaueko 9:30ean. Tokiak 10 eurotan dira eta aitzinetik erosteko aukera bada turismo bulegoan.

Basurdeen besta

Errugbi elkarteak bere erromeria eginen du abuztuaren 3 an Sarako plazan. Egunean zehar animazioak izanen dira eta eguerditan eta gauean jateko aukera izanen da.

GIZARTEA

Azken atxiloketak salatu ditu Sarako Ezker Abertzaleak

TTIPI-TTAPA

Sarako ezker abertzaletik azken atxiloketak deitoratu dituzte eta Aitor Zubillaga taldekideari elkartasun osoa adierazi. «Aitor Saran bizi da familiarekin, Senperen ari da lanean, haurrak Sarako ikastolan ditu eta bizi arrunta egiten zuen herrian, ekainaren 26an atxilotu zuten arte. Pilotara bere semearen bila zoalarik, kiroldegian arrastatu zuten dozena bat poliziak. Burua estali zioten eta beraien oton sartu. Nehork ez zuen deus ikusi orduan, eta bere emazteari ere ez zioten abisatu oren bat eta erdi berantago baikik eta semea aitaren zain egon zen bi ordu!». ».

TXARTELAK

Kartulina berezia 400gr. + 2 alde koloretan + BEZa barne

500 94€
bisita txartel



100 txartel **74€** 250 txartel **90€**
1000 txartel **116€**

AURREZTU BULEGOKO materialean

ttipi-ttapa

Koskontako bidea 7, 1 | LESAKA
948 635 458 | kulturkari@ttipi.net
www.ttipi.net www.kulturkari.com





Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA.
♥ Soinekoak
♥ Ilerako apaingarriak
♥ Poltsak
♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Santiago Olano Zabaleta eta **Eneritz Loiar**te **Zubieta**, Leitzakoa eta Goizuetakoa, uztailaren 25ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



kukuka
ESKOLARAKO
PRESTATU!
- Mantxalak
- Txandalak
- Matxiak

Zapizburua, 1. DONEZTEBE • 948 450 292

SORTZEAK

Adur Olano Loiarte, Leitzakoa, ekainaren 9an.
Amaia Claeys Ithurria, Zugarramurdikoa, uztailaren 10ean.
June Mendiburu Andresena, Legasakoa, uztailaren 12an.
Nina Leclerc, Sarakoa, uztailaren 29an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Belen
Luzaketa & Floreria

AUKERA ZABALA LORETAN

Intzakardi, 8 • DONEZTEBE
T. 948 451 758

HERIOTZAK

Rosa Velasco Badallo, Lesakan, uztailaren 4an, 102 urte.
Mauricio Mitxelena Mitxelena, Lesakakoa, uztailaren 5ean, 83 urte.
Maria Micaela Erasun Telletxea, Saldiaskoa, uztailaren 7an, 71 urte.
Petra Sagastibeltza Telletxea, Leitzakoa, uztailaren 9an, 95 urte.
Juana Mari Otxandorena Lerindegi, Oronoz-Mugairikoa, uztailaren 11n, 58 urte.
Josefa Oskoz Balda, Elizondon, uztailaren 12an, 94 urte.
Maria Rosario Arregi Altzualde, Doneztebekoa, uztailaren 13an, 79 urte.
Bautista Lertxundi Amondarain, Iurritakoa, uztailaren 13an, 77 urte.
Francisco Agesta Indakoetxea, Urrozkoa, uztailaren 14an, 77 urte.
José Zumeta Petite, Elizondokoa, uztailaren 15ean, 88 urte,
Frantxa Errandonea, Sarakoa, ekainaren 27an, 91 urte.
Juan Tomas Telletxea Elizalde, Beintza-Labaiengo, uztailaren 16an, 87 urte.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

PILOTA → GALARRETAN IZANEN DU HITZORDUA

Abuztuaren 10ean jokatu du azken partida Iñaki Lizaso doneztebarrak

San Fermin egunean Nafarroako jarraitzaileak agurtu zituen Euskalen

TTIPI-TTAPA

Iñaki Lizaso doneztebarrak erremonte profesionala uztea erabaki du eta erremontista gisa bere azken partida abuztuaren 10ean jokatu du Hernaniko Galarreta frontoian. Bitartean ez du partida ofizialik jokatu. Nafarroako jarraitzaileak agurtzeko aukera izan zuen San Fermin Egunean, Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekuan jokatu baitzuen bere hondarreko partida Nafarroan. Lehia horretan Urriza izan zuen ondoren doneztebarrak, eta



ARGAZKIA: JOSEBA ZABALZA/BOSTOK PHOTO

Lizasok besarkada estua eman zion Ezkurrari Sanfermin eguneko partidaren ondotik.

Ezkurra eta Etxeberria III.aren aurka aritu herriarren kontra aritu zen. 40-37ko markagailuarekin Urriza eta Lizaso nagusitu ziren. Doneztebeko atzelaria ongi aritu zen, zortzi tanto egin zituen peloteoan eta bi saketik. Besarkada han-

dia eman zion Ezkurrari partida akitutakoan.

San Fermin Torneoaren aurkezpenean eman zuen Lizasok erremontea uzteko erabakiaren berri: 21 urte eman ditu profesionaletan eta orain, 40 urterekin, uztea erabaki du. Hunkituta

eman zuen agurraren berri doneztebarrak eta denendako esker oneko hitzak izan zituen: jarraitzaileentzat, hedabideentzat, enpresarentzat eta batez ere, azken 20 urteotan ondoan izan dituen erremontista lagunentzat.

IBILBIDE OPAROA TXAPELEZ HORNITUA

1992ko azaroaren 27an debutatu zuen Hernaniko Galarreta frontoian Lizasok eta geroztik hainbat izan dira lortutako garaipenak. 2000an Kasino Kursal torneo irabazi zuen banaka; 1999an, 2001ean, 2004an eta 2005ean torneo berean azpitxapeldun izan zen; San Fermin Torneoan banakako txapelketa irabazi zuen 1998an, baita binaka ere 1998an eta 2001ean; Euskal frontoien XXV. urteurreneko torneoan ere txapeldun izan zen 2002an; Labriteko Eguberrietako Txapelketan azpitxapeldun izan zen 2004an; Faustino Txapelketan binaka irabazle izan zen 2007an, eta Agoitzeko binakako txapelketan azpitxapeldun 2009an.

PILOTA → XXXIV. LAXOA TXAPELKETA

Iruritako talderik gabe jokatu da finala abuztuaren 3ean

Bear-Zanan, 17:00etatik aitzinera

TTIPI-TTAPA

Baztan-Errekako 34. Laxoa txapelketaren finala abuztuaren 3an jokatu da, 17:30etik aitzinera Doneztebeko Bear-Zana pilotaleku-

an. Aitzinetik, goizeko 11:30ean hirugarren posturako lehia jokatuko dute. Gauza bat dago garbi: aurten ez duela Iruritak irabaziko. Azkeneko hiru urteetan txapeldun izan ondotik eta aurten final laurdenetarako hiru talde sailkatu ondotik, bakar batek ere ez zuen finaler-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arraiozko plazan jokatu dira finalerdietako itzulerako bi partidak igande honetan.

dietarako txartelik lortu. Honela, finalerdi batean Oiz eta Arraioz A ari dira nor baino nor gehiago eta bertzean, Arraioz B eta Donezte-

be A. Joan den larunbatean jokatzeak ziztuzten joaneko partidak eta igande honetan, uztailak 28, jokatu dituzte itzulerako partidak

Arraiozen. Goizeko 11:30ean Arraioz A eta Oizen arteko partida jokatu da eta 16:00etan Arraioz B eta Doneztebe Aren artekoa.

ERRUGBIA → SANFERMINETAKO ERREMONTE TXAPELKETA

Ohorezko B Mailan aritzeari uko egin dio Menditarrak BRT taldeak

Ez dute nahi maila horretako «betebehar ekonomikoek taldearen geroa baldintzatzea»

TTIPI-TTAPA

Espainiako Errugbi-ko Federazioak ekainean egindako batzarrean 2013-14 denboralditik aurrera lehiatuko diren estatuko txapelketen berrantolaketa onartu zen. Neurri honekin, eta iaz lortutako 3. postuari esker, Inter-sport Irabia BRT taldeak zuzenean mailaz igotzea lortu du eta Ohorezko B mailan lehiatzeko aukera dauka, estatuan bigarren maila izanzen zena.



ARGAZKIA: J.A: PEROTXENA

Oraindik ez dago garbi zein kategoriatan lehiatuko den BRT taldea.

Abisua jasota, Menditarrak Rugby Taldeko zuzendaritza batzordea eta jokalarien arteko bilerara egin zuten eta gaia aztertu ondotik, lehiaketa honetan parte hartzeari uko egin diote.

«Maila honetako betebehar ekonomikoak arras handiak dira, eta ez dugu nahi hauen eruz azken urteotan zonaldean errugbiarekin egiten ari den lana eta taldearen geroa baldin-

tzatzea» adierazi dute klubetik. Maila honetan lehiatzeko beharrezko kirol egitura daukatenik ez dute garbi ikusten eta hortaz, «ezin dugu talde erraldoi hankamotz bat osatu».

Txapelketa erakargarria geratuz gero, Lehen Maila Nazionalen lehiatuko du BRT taldeak, baina maila hau ere kolokan dagoenez, aitzinera aterako ez balitz, Euskal Erregionaleko mailan ariko litzateke.

Konpetizioak konpetizio, zonaldean errugbiari bultzada bat eman eta kirol eta gizarte erakunde bezala hazteko helburuari eusten dio BRTk. Laburbilduz, «taldea osatzen duten guztien artean adostutako eta aintzat hartutako erabaki bat izan da, geroaldian aurrera jauzi bat emateko asmoz oinarria sendotzeko atzera pausu bat eman ez kirol eta gizarte egitura sendo batekin ahalik eta goren iristeko».

MENDI LASTERKETAK → BERE LEHEN DENBORALDIAN

Joseba Larralde beratarra bigarren izan da Camille Extreme proban

Denboraldiko lehen zatiaren balantzea egin du Manttalek

TTIPI-TTAPA

Manttale taldeak 30 lasterketa baino gehiagotan parte hartu du denboraldiaren lehenbiziko zatian, martxotik ekainera. Horien artean azpimarratzekoa da Joseba Larralde beratarrak ekainaren 30ean Isabako Camille Extreme proban lortutako bi-

garren postua, Tolosan bizi den Abderrahum El Qayed-en gibeletik. Ezkaurreko igoeran (2.047 metro) bizkorrena izan zenez (38'47"), Larralderentzat izan zen Iñaki Ochoa de Olzaren omenez ematen den saria. Lehen denboraldia du Larraldek Manttalen eta maiatzean bere palmaresa estreinatu zuten, Nafarroako Koparako puntuagarria zen Ezkabako Traila irabaziz Antsoainen.

Larraldez gain, Manttaleko korrikalariak me-

ritu handiko lasterketak egin dituzte. Angeltxo Aranibar bigarren izan zen Urdazubiko kontrabandisten lasterketan eta hirugarren Biriaturbardin-Biriatur proban.

Nesken artean, Irene Almandoz irabazle izan zen Ezpeletako gaueko mendi lasterketan eta hirugarren Ereñozuko Mendi Lasterketan, Jone Zelaieta laugarren eta Idoia Maritxalar bosgarren. Maritxalar bera hirugarren izan zen Urdazubiko Kontrabandisten lasterketan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joseba Larralde bizkorrena izan zen Ezkaurre igotzen.

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO TXAPELKETAK

Iruñeko Sanferminetatik txapelez ongi hornituak itzuli dira gure kirolariak

Jon Rekondok eta Donato Larretxeak irabazi dute txapela binakako aizkoran

TTIPI-TTAPA

Emakumezkoen arpana txapelketak eman zion hasiera uztailaren 8an Sanferminetako herri kirol jaialdiari. Inoizko parte hartzerik handienarekin, sei bikote aritu ziren nor baino nor gehiago. Ez zen ezus-teko handiegirik izan ordea, azken aldiko kanporaketetan erakutsitako maila mantenduz, iazko txapeldunek, Nerea Sorondo eta Amaia Gartzia beratarrek berrtsi baitzuten titulua.

Bost minutu eta berderatzi segundo behar izan zituzten 45 ontzako enborrari hamar epai emateko. Hala, txapela eskuratzear gain, marka berria ezarri zuten. Atzetik, 25 segundora ltxaso Onsalarak eta Zizurkilgo Leire Astiazaranek osatutako bikotea sailkatu zen. Maila bikaina erakutsi zuten Patxi Larretxearekin entrenatzen duten lau neskek. Gizonzkoen txapelketan ez zen eskualdeko ordezkariarik izan eta Bar-

berena anaiak izan ziren garaile.

Uztailaren 9an Ingude Altxatze Txapelketa jokatu zen eta Maika Ariztegi iturendarrak irabazi ez ezik, Nafarroako errekorra hobetu zuen. 92 altxaldi eman zizkion 9 kiloko ingudeari minutu eta erdiz. Xanta Souza lesakarra bigarren gelditu zen, 82 altxaldi egin ondotik, Nagore Diez iturendarra hirugarren 81 aldiz jaso eta Esti Gastearena iruñearra laugarren, 73 jasoaldirekin.

Gizonzkoen Ingude Altxatze Txapelketan Berako Herri Kirol Taldeko Aritz Izuzkizak 77 altxaldi egin zituen eta Ander Iribarrenek 66.

Uztailaren 10ean, Nafarroako 3. mailako aizkolaria txapelketaren kanporaketa jokatu zen. Iker Vicente (Otsagi), Mieltxo Mindegia (Zubieta), Miguel Angel Etxeberria (Beintza-Labaien), Joxean Etxeberria (Ziga) eta Aritz Goñi (Etxarri Aranatz) izan ziren uztailaren 28ko finalerako txartela lortu zutenak.

Uztailaren 11ko kadete mailako arpana txapelketan Basaburua Eneko Irigoien eta Ekaitz Maritoren nagusitasunez suertatu ziren txapeldun.

Uztailaren 12an, Nafarroako lastoa-alkatze



ARGAZKIAK: ENERITZ IRAOLA ETA DIARIO NOTICIAS

Uztailaren 13ko saioko eskualdeko partehartzaileetako batzuk, Xanta Souza eta Unai Bertiz txapeldunekin. Behean, binakako aizkora txapelketako podiuma.

txapelketa jokatu zen. Hamahiruna altxaldirekin berdinduak bukatu zuten bi minutuko lehia Eneko Telletxea eta Arkaitz Retegi igantziarrek, baina epaileek Telletxeari eman zioten txapela, bera izan baitzen bi minutuak lehiaren zuten bakarra. Hirugarren, Etxalarko Jabier Galarregi izan zen.

Uztailaren 13an, Nafarroako harri-jasotze txapelketa seigarren urtez segidan jantzi zuen Unai Bertiz sunbildarrik, pronostikoak betez. Harri guziekin nagusi izan zen, zilindroa 22 aldiz berdindu baitzuen bizkar gainean, kubikoa 14 aldiz eta bola 18 aldiz. Denera, 6.125 kilo altxatu zituen. Bigarren, Xabier Ariztegi "Santxin" etxalartarra izan zen, 5.000 kilorekin (18 aldiz altxatu zuten zilindrikoa, 12 kubi-

koa eta 14 bola) eta Al-dazko Xabier Igoa izan zen hirugarren (4.100 kilo). Josetxo Urrutiak ez zuen parte hartzerik izan.

Txinga txapelketan, berriz, Xanta Souza lesakarra izan zen irabazle, 32 plaza pasaturekin. Iaz, 13 gehiago egin zituen, baina berok ez zion gehiagorako aukerarik eman. Bigarren Nagore Diaz iturendarra izan zen, 28 plaza pasaturekin. Dexente gibelerago gelditu ziren Leire Astiazaran, Baztan-Bidasoa Herri Kirol Taldeko zizurkildarra, 10 plaza pasaturekin, Maika Ariztegi iturendarra (9 plaza) eta ltxaso Onsalarak (8 plaza).

Uztailaren 14an, Nafarroako binakako aizkora txapelketa jokatu zen. Proba gehiengan aitzinetik ibili ziren Flo-

ren Nazabal eta Aurtizko Ander Erasun, baina azken enborrean nagusitu ziren Donato Larretxea aranzarra eta Jon Rekondo leitzarra, 22 minutu eta 4 segundoko denborarekin. Nazabal eta Erasunek 14 segundo gehiago behar izan dituzten eta Antonio Senosiain eta Juanjo Lopezek 25 minutu eta 38 segundotan burutu zuten sei kanaerdiko eta bertze horrenbertze 60 ontzako mozteko lana.

Orga-jokoan, azkenik, Joseba Petrirena beratarra gailendu zen, hiru plaza eta erdi eta 2,50 metro eginda. Bigarren Metautengo Simon Tomas Callaghan izan zen (3 plaza eta laurden eta 4,58 metro) eta hirugarren Iruñeko Alvaro Zugarrondo, plaza bat eta laurden eta 3,79 metro eginez.

PILOTA → SANFERMINETAKO ERREMONTE TXAPELKETA

Urtasunek eta San Miguelek hirukoari finalean irabazi eta txapela jantzi dute

40-32 irabazi zieten finalean Juanenea, Endika eta Ioni

TTIPI-TTAPA

Bigarren urtez segidan Sanferminetako erremonte txapelketa irabazi dute Gorka Urtasun iruritarrek eta Julen San Miguel doneztebarrak. Iaz, Ezkurra eta Olazar doneztebarrei irabazi zieten finalean eta aurten, Aritz Juaneña eta Endika Urrutia saldiastarrek eta Ionek osatutako hirukoteari.

Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekuak itxura ona eman zuen uztailearen 13ko finalean eta jende aunitz hurbildu zen. Azkenean, 40-32 nagusitu zitzaion bikotea hirukoteari, baina emaitzak erakusten duena baino borroka handiagoa izan zen.



ARGAZKIA: JOSEBA ZABALZA/BOSTOK PHOTO

Bigarren urtez segidan irabazi dute Sanferminetako torneo Urtasun eta San Miguelek.

6-8 irabazten joan zen hirukotea, baina 11-0eko partziala lortu zuen bikoteak (17-8) eta gero, alde hori ongi kudeatu zuen. Sei tantora hurbildu zen hirukoa (19-13), baita laura ere 36-32koan, baina horixe gelditu ziren.

Julen San Miguel izan zen finaleko eta txapelketako erremontelaririk onena. Finalean 13 tanto egin zituen pilotetean eta 7 sakez. Gorka Urtasunek ere lan ona egin zuen, 12 tanto akituz. Galtzaileen aldetik, 12 tanto egin zituen Jua-

neneak, zazpi Endikak eta lau tanto Ionek (bakarra sakez).

Ligaxkako lehen partidaren hirukoteak irabazi egin zien Urtasun eta San Miguel-i, baina bikoteak behetik goiti egin du txapelketan eta saioi onean akitu du.

ESKU PILOTA

Abel Barriola Irujorekin txapeldun izan da Iruñean

TTIPI-TTAPA

Sanferminetako eskuz binakako pilota txapelketan, Irujo eta Abel Barriola leitzarra suertatu ziren txapeldun, finalean Aimar Olaizola goizuetarrari eta Beroiz-i 22-18 irabazi ondotik. Partida hasiera bikaina egin zuten txapeldunek eta 10 tantuko aldealortu (18-8). Bi tantura hurbildu ziren Aimar eta Beroiz, baina ezin izan zioten markagailuari bueltarik eman. Beraz, Iruñeko ferian banaka nahiz binaka azpitxapeldun izan da Aimar Olaizola.

PILOTA → SANFERMINETAKO PALA TXAPELKETA

Fusto eta Xabi Ibargarai erratzuarrak txapela lortu dute

Bortz joko behar izan zituzten finalean Gaubeka eta Luján-i irabazteko

TTIPI-TTAPA

Sanferminetako pala txapelketaren finala jokatu zen uztailearen 11n eta iaz bezala, Fusto eta Ibargarai izan dira txapeldun. Bortz set edo joko behar izan zituzten Gaubeka eta Luján-i irabazteko, partida ikusgarri eta gogor batean.



ARGAZKIA: WWW.INNPALA.COM

Fusto eta Ibargaraiak ere bi urtez segidan irabazi dute Sanferminetako txapelketa.

Partida gogorra izan zen zela garbi ikusi zen lehenbiziko jokoan. 9-10 irabazi zuten Gaubeka eta Lujanek. Bigarrena 10-6 irabazi zuten Fustok eta Ibargaraiak. Hirugarrengoa,

berriz ere nagusitu ziren Gaubeka eta Lujan, 8-10. Partida berdintzea eta bosgarren joko behartzea lortu zuten laugarrengoa Fustok eta Ibargaraiak (10-5) eta azkenekoan erraz na-

gusitu ziren 10-2, txapela bereganatuz.

Hirugarren posturako lehian ere bortz joko behar izan zituzten Altadill eta Imanolek, Urkijo eta Aierberi irabazteko.

uztailak 25 - abuztuak 8

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Lehiaketak



LEITZA | 2013.07.26

Gaztebaxeren zortzigarren urteurrenean labor lehiaketa

Leitzako Atekabeltz gaztebaxerak zortzi urte egin dituela eta, ospakizunetan dabilta azken egunean. Egitarauaren barne, ostira-lean korto lehiaketa egingen dute.

Ospakizunak



URDAZUBI | 2013.08.10

Burdinaren Eguna ospatuko dute aurten ere Urdazubin

Abuztuaren 10ean egingen da Burdinaren Eguna eta egun osoko egitaraua prestatu dute: artisau azoka, burdinaren etorreraren antzezpena, zikiro jatea, musika...

Ospakizunak



SARA | 2013.07.27

Sarako Urtxintxak elkartearen 20. urteurreneko besta

Sarako Urtxintxak eskubalo elkartearen 20. urteurrena ospatzeko, besta antolatu dute: eskubalo txapelketa, aperitifa, paella erraldoia eta gaualdi animatua.

Kontzertuak

ARANTZA

Xabi Sansebastian Aterpean

Abuztuaren 9an Xabi Sansebastianen kontzertua Aterpean (23:00).

SARA

Goraki abesbatza elizan

Abuztuaren 1ean Goraki abesbatzaren kantaldia elizan (21:30).

ETXALAR

Organo kontzertua

Abuztuaren 9an organo kontzertua elizan, 20:00etan.

Ospakizunak

SARA

Sarako Urtxintxen 20. urteurreneko besta

Uztailaren 27an Eskubalo elkartearen 20. urteurreneko besta.

Saguzarren gaua

Uztailaren 26an saguzarren gaua lezeetan.

Errugbizaleen besta

Abuztuaren 3an Bazardeak Errugbi Elkartearen besta plazan.

URDAZUBI

Burdinaren Eguna

Abuztuaren 10ean Burdinaren Eguna.

Pilotaren Unibertsoa

Abuztuaren 3an eta 24an Pilotaren Unibertsoa jaialdia dela eta ekitaldiak.

BERA

Folklore Jaialdia

Uztailaren 29an Bidasaldeko XVII. Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdia eskolako frontoian, 20:00etan.

Bestak

ARANO

Santioak

Uztailaren 25etik 28ra.

Erakusketak

ELIZONDO

Tomas Sobrinoren margo erakusketa

Uztailaren 23tik irailaren 1era *El placer de mirar* Arizkunenean.

Jorge Cardarelliren pintura eta instalazioa

Abuztuaren 1etik 20ra *El principe que contemplo su alma* erakusketa Arizkunenean.

Lesagibel eskulturak

Abuztuaren 23tik irailaren 6ra Arizkunenean.

ARIZKUN

Xabier Soubeleten margo erakusketa

Abuztuaren 30era arte margo erakusketa Sasternean.

Teresa Lafraguaren margo erakusketa

Abuztuaren 31ra arte margo erakusketa Santxotena Museoaan.

ERRATZU

Jose M^a Apezetxea eta Roke Lasaren margoak

Uztailaren 27tik abuztuaren 25era margo erakusketa Zubietean.

Diana Iniestaren margo erakusketa

Abuztuaren 2tik 31ra *Ispiluan* erakusketa.

SARA

Margo erakusketa

Uztailaren 30era arte Larrungo koloreak elkartearen erakusketa Lur Berrin.

BERA

Mikel Telletxearen arte erakusketa

Abuztuaren 11ra arte Mikel Telletxearen arte erakusketa Kultur Etxeko erakusgelan.

Ikastaroak

ELIZONDO

Helduentzako margo

BERA

Hainbat ekitaldi sanestebanetan

Abuztuaren 2an hasiko dira ofizialki Beran bestak, eta hilaren 6an bukatu. Tarte horretan hainbat ekitaldi izanen dira, baina egun horiek baino lehen ere izanen da zer ikusia: arte erakusketa, uztailaren 27an txirrindularitza proba eta herri kirol jaialdia, uztailaren 28an plater tiroketa eta bizikleta eguna eta 29an Bidasaldeko Gazteen Nazioarteko Folklore Jaialdia.

ikastaroa

Abuztuaren 1etik 14ra *Baztango paisaiak* kanpoko margo ikastaroa helduentzako. Izen-ematea Arizkunenean.

BERA

Helduentzako euskal dantza ikastaroa

Uztailaren 16 urtetik goitikoentzat euskal dantzen ikastaroa.

Lehiaketak

LEITZA

Korto lehiaketa Atekabeltz gaztebaxerak

Uztailaren 26an korto lehiaketako lanen proiektzioa eta sari banaketa, 22:30ean.

Zinema

GARTZAIN

Udako zinema

Uztailaren 29an *Barriola San Adriango azeria* filma pilotalekuan, 22:00etan.

ZIGA

Udako zinema

Abuztuaren 5ean *Izotz Aroa 3 dinosaurioen egunsentia* (21:30).

PROPOSAMENA



ELGORRIAGA

Santioak
Uztailaren 24tik 27ra.

ELIZONDO

Santioak
Uztailaren 24tik 28ra.

ARANTZA

Ballekasko bestak
Uztailaren 27an.

BERA

Sanestebanak
Abuztuaren 2tik 6ra.

BEINTZA-LABAIEN

Herriko bestak
Abuztuaren 2tik 5era.

GAZTELU

Bestak
Abuztuaren 2tik 5era.

ZIGA

San Lorentzo bestak
Abuztuaren 9tik 13ra.

SUNBILLA

San Tiburtzio bestak
Abuztuaren 10etik 14ra.

LEITZA

San Tiburtzio pestak
Abuztuaren 10etik 15era.

Azokak

SARA
Ortzegenero azoka
Uztailaren 4tik
irailaren 26ra ortzegu-
nero azoka plazan.

SENPERE

Asteartero azoka
Udan asteartero azoka
Posta aitzineko plazan.

Mendi irteerak


GOIZUETA
Aranora ateraldia
Uztailaren 25ean Ara-
nora joanen dira oinez.

DONEZTEBE

Aspera ateraldia
Uztailaren 27an Aspe
mendira irteera.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburuak



Kika yoga egiten

ULRIKE DEZE

AIORA JAKA IRIZAR

Tarttalo, 2013

Yoga, Indian sortutako antzinako jarduera da eta mundu osoko milioika lagunek egiten dute gaur egun. 6 urteko Kika tikiak eta bere lagun Yazou tximinoak 14 yoga-jarrera erakutsiko dizkiote irakurleari, eguneko edozein unetan praktikatzeko errazerrazak. Jarrera horiek bakarrik edo gurasoekin, familiarekin, lagunekin edo irakaslearekin egin ditzaite haurrak. Lau istorio eta kontakizun erlaxagarri ere biltzen ditu liburuak, hobeki kontzentratzen, energia berreskuratzen eta atsedean hartzen lagunduko dutenak. Liburu honetan lau kapitulu aurkituko ditu irakurleak. Kapitulu horiko jarrerak goizean ongi esnatzen lagunduko dute; berdekoekin, berriz, kontzentratzen ikasiko du haurrak; kapitulu gorriko mugimenduekin zenbait animalia imitatuko ditu eta sasoi betean dagoela erakutsi. Kapitulu urdineko mugimendu leunek, azkenik, lasaitzen lagunduko diote. 6 urtetik goitikoentzat da liburuak, Ulrike Dezek idatzia eta Aiora Jaka Irizarrek euskarara itzulia.

Musika



Fermin Muguruza
Radar FM 1999.2013

FERMIN MUGURUZA

Talka Records, 2013

80. hamarkadan Kortatu eta Negu Gorriak taldeekin, geroago Dut taldearekin elkarlanean... Horrela ezagutu genuen Fermin Muguruza artista irundarra. Eta 1998tik gaurdaino bakarlari gisa ibilbide luzea eta oparoa joratu du musikagintzan. Aurten, berriz, FM 1999-2013 diskoa argitaratu du: *Brigadistak Sound System* lanetik, *Asthmatic Lion* azken laneraino argitaratutako kantuen eta erremixen bilduma. 18 kanta bildu ditu azken disko honetan: *Balazalak, Urrun, Maputxe, Eguraldi Lainotsua, Newroz, Dub Manifest, Big Beñat, Bere-Bar, Zubizuria, In-komunikazioa, Armagideon, Azoka eguna, Euskal Herria Jamaika Clash, Yalah Yalah Ramallah, La linea del Frente, Asthmatic Lion, Ezin ihesi Berlin* eta *Zuloak Riot*. 50 urte bete ditu aurten musikari irundarrak eta bakarlari gisa daramatza 15 urte hauetako lanen bilduma egitea erabaki du.

Internet



Euskal kontuak
eta deskontuak

WWW.EUSKONTU.COM

Euskal kontuak eta deskontuak, hori da Euskontu azken finean. Gustuko duzun hori eskaintzen du webgune sortuberriak, beti ere euskaraz eta gainera beherapenarekin. Euskaraz bizitzea ahalbidetzen duten enpresek egindako kalitateko produktu eta zerbitzuak biltzen ditu. Kontzertuak, jateak, kirol ekintzak, era guztietako ikuskizunak, moda, osasuna eta estetika, ihesaldiak... Egutero aisialdi euskaraz gozatzea erraztuko duen plan berri bat eskaintzen du Euskontuk. Bide bat baino gehiago daude Euskontu berriak zein diren jakiteko: webgunea bisitatzeaz gain, edozein harpidetu daiteke, eta euskontu berri guztiak postan jasoko ditu erabiltzaileak. Facebook eta Twitterren eguneroko eskaintzen berri ere paratzen dute. Negozio bat duenak eta euskonturen bat egin nahi duenak iragarkiak egiteko modu berri bat izanen du, gasturik ez eta gainera euskaraz.

Nire aukera



Arantxa GAMIO
Zigako gaztea

«Aunitzetan ez da urruti joan beharrik toki ederrak ikusteko»

Lagunekin planak egin eta etxe inguruan edo etxeokoen denbora pasatzea». Denbora librean hori egitea gustatzen zaio Arantxari. Bere zaletasunen berri ere eman digu: «Kuadrillakoek bizikletak erosi genituen eta orain zonaldeko errepideetan gabiltza. Argazki kamara lepoan, paseoak ematea eta ondotik bideo muntaiak egitea ere gustatzen zaizkigu eta neguan etxe barrerako eskulanak egitea». Bidaia zehar ere «aunitzetan» gustatzen zaio eta ezagututako toki ederren artean, Saharako basamortua, Costa Brava-ko itsas herriak, El Salvadorreko hondartza beltza, Igeldotik begiratuta Donostia... aipatu dizkigu. Baina bere ustez, «ez da urruti joan beharrik toki ederrak ikusteko». Aspeturuko planik ederrena «eguraldi onarekin egin daitekeen edozein kanpoko ekintza» omen da. Eta mendia ala itsasoa? «Epel dagoelarik mendia, eta bero egiten duelarik itsasoa», dio. Besta egiteko Zigako inauteriak eta bestak ditu gogoko, baita Baztandarren Biltzerra ere. Aldiz, «Berroetako kanal ingurua» du Baztango txokorik gustukoena.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONOZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mogleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi pezeta/100.000 euro. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

URDZUBI

- Etxe berri bat salgai, mogleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mogleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

UITZI. Bi duplex salgai. Batek 114,93 m² ditu eta besteak 94,66 m². Prezio interesgarria. ☎699 461213.

LEITZA. Borda salgai, 13.500 m²ko lursailarekin. Ura eta bidearekin. ☎628 123026.

BARAÑAIN. Pisua salgai (Merkataritza etorbidea). 90 m² + trastelekua + garaje plaza. Hiru logela, sukalde-jantokia eta bi bainugela. 210.000 euro. ☎647 880770/636 680013.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

IRUÑEA. Zolina kalean, pisua errentan emateko. Unibertsitate publikotik 2 minututara eta pribat

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tutik hurbil, Sadar futbol zelaiaren ondoan. Ikasleendako aproposa. 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. ☎626 389226 (Ainhoa).

ETXALAR. Pisua errentan emateko. ☎948 635014/ 628 351470.

IRUÑEA. Azpilagaina auzoan, pisu argitsua errentan emateko. Bi unibertsitateetatik hurbil. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Igogailua badu, ur beroa eta berogailua zentralak dira. Ikasleendako egokia, baita beste gisa ere. 600 euro hilabetean, komunitate eta berogailu gastuak barne. ☎610 508206 (Santi).

ORONOZ-MUGAIRI. Pisu berria errentan emateko. Mogleztatua, igogailuarekin eta berogailuarekin. Sukalde-egongela, logela bat, bainugela eta trastelekua dauz



ka. Hilabetean 270 euro. ☎663 312557.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESAKA-BIDASOA. Pisu edo etxe tiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. ☎636 777478 (Deitu 16:00etatik aitzinera).

ZUGARRAMURDI/URDAZUBI inguruan etxebizitza errentan hartuko genuke. Bikote euskaldunagara. Gehenez 400 euro. ☎622 208560.

LEITZA. Leitzako biko-

tea pisu edo baserri bila errentan hartzeko. ☎661 829359.

BERA. Bikote batentzako pisua bila, 300 euro inguru ordaintzeko. ☎679 928331.

ETXEBIZITZAK
konpartituak

DONOSTIA. Amara auzoan mutila behar da pisua konpartitzeko. ☎948 580384/ 688 623735.

IRUÑEA. Malerrekako 3 neska unibertsitate publikoaren ondoan dagoen pisua konpartitzeko neska baten bila ari dira. ☎639 439509.

GARAJEAK/LOKALAK

errentan eman

LEITZA. Landa jatetxea errentan emateko, 300 m²koa. Oso egoera onean. ☎616 122883.

LURRAK/ORUBEAK

salgai

BERA. 1.120 m²ko lur eremu urbanoa salgai, herri erdian. ☎948 630552.

LANA

eskariak

Neska euskalduna haur edo aiton-amonak zaindu edo haiei laguntzeko prest dago, esperientzia pittin batekin. ☎637 054154.

BERA. Sukaldari laguntzaile bezala lan eginen nuke, esperientziaduna. ☎637 054154.

ZUGARRAMURDI inguruan ostalaritza lan eginen nuke. Zerbitzari zein sukaldari laguntzaile gisa esperientziadun mutila. ☎622 208560.

Doneztebeko **neska** batek etxeak garbitzen lan eginen luke Doneztebe edota Elizondan. Deitu arratsaldean. ☎649 901395.

Doneztebeko **neska** batek, administratiboko titularekin, lan eginen luke Doneztebe edo Elizondo inguruan. Deitu arratsaldean. ☎649 901395.

Eskualdean **emakumea**

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Ekainaren 28tik uztailearen 5era bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 44 € (=)

Zerri gizena
1,430 € kiloan. (+0,010)

Zerramak:
0,810€ Kg/bizirik. (=)



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,28
1.koa 4,02
2.koa 3,87

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,06
2.koa 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 135,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 155,00
idixkoak 165,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,10/7,20
8-10 kilokoak: 5,70/6,40

interna ariko litzateke. ☎693 965208 (Gladis).

19 urteko neska bat udan haurrak zaintzen, etxeko lanak egiten, os-tatu batean lanean edo bertze edozertan ariko litzateke. ☎669 102860.

LANA

eskaintzak

BERA. Jatetxe batean esperientzia duen sukaldaria behar da bazkariak prestatzeko. ☎948 631658 / 650 981950.

MOTORRAK

salgai

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 67.000 km. ITV bi urterako pasatu berria. ☎628 572273.

GOIZUETA. Aisan markako autoa salgai, egoera onean. 1.500 euro. ☎690 050903.



Quad bat salgai, Yamaha Kodiak 450, gorria. 6.400 kilometro, gutti erabilia. Txaketa eta kaskoa opari. 4.500 euro. ☎654 712900.

ANIMALIAK

oparitzeko

Katakumeak oparitzeko. ☎661 006327.

ANIMALIAK

salerosketak

LEITZA. Setter arrazako oilagor zakurkumeak salgai. ☎660 856246 / 679 796284.

DENETARIK

zerbitzuak

Diana Iniestarekin **haurrentzako ekintzak** abuztuan. 1. Txotxongi-loak, 2. kanpoan margo-

DONEZTEBERRI AVIA GASOLINDEGIA

DESKONTUAK
CLUB AVIA txartelarekin
%2 gasolio eta gasolinan
%5 dendako produktuetan

Zuk gozatu ...hark garbitu
Eraman Solac robot xurgagailu hau Club AVIArekin
Lortu zure zenbakia.
20k-ko erregai-hornitze
edo erosketa bakoitzeko

tu, 3. ingeles ikastaro trinkoa eta 4. magia potagia. Informazio gehiago eta izena emateko: <http://pintayrepinta.blogspot.com> edo 948 453478.

DENETARIK

bertzelakoak

DBHko ikasle batek fisika eta kimika klaseak emanen dizkion **irakasle partikularra nahi du.** ☎652 725037.

Irailetik aitzinera Doneztebetik Donostiara 08:40-an joateko eta 15:00etan etortzeko **kotxea konpartituko nuke.** ☎629 734263.

DENETARIK

salerosketak

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 / ☎699 461394.

Agotza paka ttikiak salgai. ☎948 450216.

Kozina kalefaktora salgai, hagitz egoera onean, gutti erabilia. 800 euro. ☎629 540549.



DENETARIK

galdu-aurkituak

Alkaiagako frontoian haur baten **jertsea** aurkitu du-te, **giltza** batzuekin. ☎665 712690.

ttipi-ttapa
info@ttipi.net · (0034) 948 63 54 58

BAZTAN MOTOR S.L.
TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA

Orain Quad, ATV, UTV, Scooter eta Boogyak lanerako eta aisiarako

G GOES

Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55



OITZ

USATEGIAK ENKANTEAN

Oizko Udalak enkante publikoan jartzen du, ahozko posturen bidez, honako usategi puestoen aprobetxamendua:

Puesto zenbakia BAT.	Hasierako prezioa: 1.200,00 euro.
Puesto zenbakia HIRU.	Hasierako prezioa: 1.400,00 euro.
Puesto zenbakia LAU.	Hasierako prezioa: 1.400,00 euro.
Puesto zenbakia BORTZ.	Hasierako prezioa: 1.000,00 euro.

Aprobetxamenduak, urte baterako izanen dira, luzagarriak, gehienez, hiru urtetaraino.

Enkantean parte hartzeko, lizitatuzaileek hasierako prezioaren %5 utzi beharko dute aldeaz aurretik, behin-behineko fidantza gisa.

Goiti jotzeko postura 50 eurokoa izanen da.

Lehen **enkantea** Oizko Herriko Etxeko bilkura aretoan egingen da, **2013ko abuztuaren 24an, eguerdiko 12etan.**

Esleipena arautzen duen baldintza agiria, interesdunen eskurara dago udal idazkaritzan.

Oitz, 2013ko uztailaren 9an
Alkatea,
Alberto San Miguel Mindegia

emakumearen eguna

V. Pintxo Lehiaketa
DONEZTEBE
V. Concurso de Pintxos
SANTESTEBAN

85€

50 kartel A3 (30,3cm x 42,6cm)
Koloretan
135g
Diseinua + inprenta + garraioa
BEZA barne
Epea: 10 lan egun

ttipi-ttapa
Hastekuntza bidez, T. +34 948 63 54 58
www.ttipi.net | info@ttipi.net

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



LARRAITZ DO-KOUTO SANTES-TEBAN etxalartarrak 2 urte bete ditu uztailaren 6an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Berako **AIALA SAN JUAN AROZENA** urteak beteko ditu abuztuaren 12an. Zorionak eta 7 muxu haundi etxeko printzesari. Ongi pasa eguna!



Berako **GEXAN SAN JUAN AROZENA** urteak beteko ditu uztailaren 30ean. Zorionak eta 4 muxu haundi etxeko bihurriari. Ongi pasa eguna!



Zorionak **ANER!** Uztailaren 24an gure etxeko terremotto tiikiak urte bat beteko du. Prestatu arratsaldean zure lehenengo kandela itzaltzeko eta tarta goxo-goxo bat *ñan-ñan* egiteko! Muxu haundi bat amatto, attatto eta familia guztiaren partetik.



Uztailaren 24an **ANER** gure etxeko pottoloak urte bat beteko du. Zorionak aunitz ataxi eta amatxiren partetik. Muxuak txupetitos.



Berako **MADDI LASARTE BARREDO** etxeko printzesa tiikiak 2 urte bete ditu uztailaren 17an. Zorionak familia guztiaren eta bereziki atxa eta amaren partetik.



Iruñeko **JAVIER LASARTE LAKAR** gure muttiko politak 4 urte beteko ditu abuztuaren 23an. Zorionak Berako familiaren partetik eta muxu bat Maddiren partetik.



Berako **MADDI LASARTE BARREDO** neska xarmaniak 2 urte bete ditu uztailaren 17an. Zorionak Iturlandeko familiaren partetik eta muxu bat Javierrek.



MALEN ETXEKOLONEA DIEZ zubietarrak urteak bete ditu uztailaren 15ean. Zorionak eta 8 muxu erraldoi etxekoan eta bereziki amaxi eta amonaren partetik



Zugarramurdiko **MADDI MITXELENA ARBURUAK** 10 urte beteko ditu uztailaren 27an. Muxu pottolo bat eta begari-tiraloi bat aitaxi-amaxiren partetik.



IKER GOROSTIAGA MUTUBERRIAK urte bat beteko du uztailaren 28an. Zorionak Doneztebeko ataxi, amaxi eta izeba Ainhoaren partetik. Muxu haundi bat tiitirri!!!



Legasako **NAHIA MARIÑELARENA ELIZALDEK** uztailaren 25ean 2 urte beteko ditu. Ongi pasa zure egunean eta muxu handi bat Zubietako familiaren partetik eta bereziki Janire, Aimar eta Enaitz lehengusuen partetik. Prestatu berendu goxoa!



Zorionak bikote!! Ezkurra **JOSEBA GOROSTIAGAK** uztailaren 17an 32 urte bete ditu eta **IKER GOROSTIAGAK**, gure pottokitok, berriz, uztailaren 28an bere lehenengo urtea beteko du!! Muxu haundi bana amaxo eta familia guztiaren partetik.



Legasako **NAHIA MARIÑELARENA ELIZALDEK** 2 urte beteko ditu uztailaren 25ean. 2 muxu pottolo aita eta amaxoren partetik xorgintxo. Opi! goxo-goxoa prestatu merendatzeko.



Aunitz urtez **JOELTXO** uztailaren 27an 4 urte eginen dituzulako. Muxu aunitz denen partetik txipiron.



Uztailaren 3an, Labaiengan **MARIA TELLETXEAK** 13 urte bete ditu San Francisco (California). Zorionak familiaren partetik.



Pin, pan, pun urtetxoa betetzeko puntun, Arantzako **IKER** txapelkun!!! Zorionak Arantzako **IKER ALZURI LUJANBIO**ri uztailaren 31n urtea beteko duelako. Asko matte zittun zure familiaren partetik.




Berako **XANTI AGIRRE GONZALEZ** eta **GABRIEL AGIRRE ZELAIETA** aita-seeek urteak beteko dituzte uztailaren 30ean (6 urte) eta abuztuaren 6an. Zorionak bikote, segi biek horreinen zalamerero. Ea egun politak pasatzen ditugun elkarrekin, besarkada handi bat zuen familiaren partetik.



Lesakako **XABAT ARBURUA PORTUK** uztailaren 18an urte bat bete du. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Arantzako familiaren partetik.



Lesakako **UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK** 4 urte beteko ditu abuztuaren 1ean. Familiaren, eta bereziki Oihan, Naia eta Olaiaren partetik aunitz urtezzzzzz!!! Prestatu tarta goxoa!!!



Lesakako **NAROA VILLALBA LARRALDEK** urteak beteko ditu uztailaren 25ean. Zorionak zure 9. urtebetzean familia guztiaren partetik eta bereziki Martxel, Oihan eta Kemenen partetik. Muxu handi bat.



Arantzako **EIDER TABERNA MUTUBERRIAK** 10 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Aunitz urtez familia eta bereziki Asier eta Naroa lehengusuen partetik.



Abuztuaren 26an Doneztebeko **OIER BELARRA MARIÉZKURRENEN** 8 urte beteko ditu. Zorionak Doneztebeko eta Ezkurra familiaren partetik eta bereziki zure arreba Nahia eta Enaitz lehengusuen partetik. Prestatu berendu goxoa!



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa www.ttipi.net en

argazki soila
4
EURO

aldizkarian - interneten

argazki bikoitza
8
EURO



Lesakako **UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK** eta Kasedako **OIER SOLA LEIZAK** 4 urte beteko dituzte abuztuaren 1ean eta 3an. Aunitz urtez bikote!!

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitzez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euskal Herria 40 €
- Europa 59,50 €
- Buztan, Urdazubi eta Malerka 34 €
- Amerika eta Australia 124 €
- Ipar Euskal Herria 59,50 €
- Letza 18 €

(0034) 948 63 54 58 · www.ttipi.net



Xantelmar S.L. Zalain Ind. z/g
31780 Bera. Nafarroa.
Tel: 948 625156 Fax: 948 625 157
www.martiko.com

BESTA ONAK PASA!



ZURE GOZAMENERAKO LEHENGAIK HOBERENAK.

DENDA ORDUTEGIA
Asteleheneretik-ortziralera 08:00-17:00
Martiko Zalain Ind. z/g 31780 Bera Nafarroa
Tel. 948 625 016 Fax: 948 625 036
www.martiko.com · martiko@martiko.com

ZORIONAK!



Jantzi-dendak Lurrin-dendak Bitxi-dendak Supermerkatuak Tabako-dendak
Harategiak Jatetxeak Ostatuak Sagardotegia Diskoteka

www.vento-peio.com

Tel: (0034) 902 210 800

Jaiotzen garenetik, zera pentsatzen dugu:

Zerk egingo nau handi?

Beharbada, urteek, arrakastak, txaloek.

Abizen bat edo beste bat izateak.

Iparralderago edo hegoalderago jaio izanak.

Uste izango duzu gaztetasunak, edertasunak edo diruak egingo zaituztela handi.

Dugun guztiren araberako handitasuna dela gurea.

Baina hort ez da egia inondik ere.

Gauza batek baino ez baikaitu handi egiten mundu honetan:

Norberaren buruarekiko leialtasunak.

Zeure buruarekiko leialtasunak egiten zaitu handi

CaixaBanken, ehun urte baino gehiago daramatzagu gure balioekiko leial. Eta gaur egun ere eusten diogu gure inguruko pertsonetik eta garapen sozial eta ekonomikoarekiko konpromisoari. Eta horrek egin gaitu handi.

- Espainiako lehen bankua
- Espainiako 1. Gizarte Ekintza
- 13 milioi bezero baino gehiago
- 6.000 bulego baino gehiago

Izan ere, banku bat baino gehiago gara. CaixaBank gara.

www.CaixaBank.com



Espainiako
2012ko
bankurik
onena



Munduko
bankurik
beritzaleena



Europako
bikaintasunaren
EFQM urrezko
zigilua



24 selekzio, 80 partida,
saskibaloiko munduko izar guztiak